SAKANAKO ASTEKARIA • 2015eko lastailak 9, ostirala • 2. aroa • 525. zenbakia

GUAIXE.EUS

PRES TOKIKOM

Etxarri zizek eta landareek hartuko dute igandez

Sakanerria >> 6

Irurtzungo bigarren eskuko azoka Mank-en Immigrazio Zerbitzuaren Kultur arteko Bitartekaritza Zerbitzuaren alde izanen da

Sakanerria >> 7

Hizkuntza eskubideek sendatu beharra dute

>>3

Irurtzun eta Iruña arteko errepidea "bereziki arriskutsua"

>>5

Lau sakandar Bidadorren omenezko pastoralean

>>13

Txistor Eguna etzi Arbizun

>>5

Urbasako Igoerarekin jendetzak gozatu zuen

>>13

Altsasuko gaztetxea urtebetetze festa betean

>>7

Uharte Arakilgo II. Euskal Festa igandean

>>7

Nazabal txapeldunak lehiari agur esan dio

>>10

ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke: 3035 0018 47 0181012564

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

Asier eta Mattin ZORIONAK etxeko mutikoei!! Beti bezain jatorrak jarraitu. Muxu pila denon partez.

Bazkideek deskontua

Bakarra: 4,00€

Bazkideek: 3,50€

lastailak 9-15

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Grandako eta Erkudengo Ama abesbatzak. Lastailaren 10ean, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Javier Lopez Jaso, Marcelo Escrich eta Juanma Urriza. Lastailaren 11n, domekan, 22:30ean Altsasuko Haritza tabernan.

Antzerkia

Ihabar Kabaret. Lastailaren 10ean, larunbatean, 20:00etan Ihabarko beheko iturri inguruan. **Ihabarko antzerki taldea.**

Zinema

Mr Holmes. Lastailaren 9an, ostiralean, 22:00etan lastailaren 11n, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Mendi irteerak

Euskal Herriko erdigunea. Lastailaren 11n, igandean, 9:00etan Irañetatik, Unanutik eta Ollotik. **Sakanako Mendizaleak eta Independentistak Sarea.**

Arriel punta. Lastailaren 11n, domekan, goizez. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Belate-Beruete. Lastailaren 12an, astelehenean, 7:00etan Irurtzundik. **Iratxo mendi elkartea.**

Bizikleta irteerak

Dorletako Amari bisita (denboraldi akabera). Lastailaren 10ean, larunbatean, 9:00etan Altsasuko kultur gune paretik. 110 km. **Zikloturista taldea.**

Baizako gaina. Lastailaren 11n, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:50ean Urbasako kanpinean. 47 km. **Barranka txirrindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Dekorazio arteak. Lastailaren 11ra arte, astegunetan, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. **Yolanda Arnedoren tailerra.**

Ihabar Kabaret, bihar, 20:00etan, Ihabarko beheko iturri inguruan.

Zizak eta landareak. Lastailaren 11n, igandean, goiz eta arratsaldez, Etxarri Aranazko plazan. **Harzabal elkartea, mikologia eta landareen taldie.**

Hitzaldiak

Oroimena eta askatasuna. Lastailaren 10ean, larunbatean, 11:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean. **Hizlaria: Antton Lopez "Kubati" preso ohia.**

Dementzia duten pertsonekin nola komunikatu. Lastailaren 13an, asteartean, 18:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Hizlaria: Carmen Etxabarri (mediku neurologoa).

Bestelakoak

Katxarro eguna. Lastailaren 10ean, larunbatean, 10:00etatik aurrera Bakaikun.

Bigarren eskuko azoka. Lastailaren 11n, igandean, 10:00etatik 14:00etara Irurtzungo plazan. **Itxipuru taldea.**

Txistor eguna. Lastailaren 11n, igandean, 10:00etatik aurrera Arbizun.

II. euskal festa. Lastailaren 11n, igandean, 12:00etatik aurrera Uharte Arakilen. Uharten Guk Gureak elkartea.

Dealdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Lastailaren 9an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Lastailaren 11n, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Programa guztion artean. Lastailaren 13an, asteartean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinaren beheko solairuan. **Podemos-Ahal Dugu.**

SAKANA

Iraleko 12 irakasle Altsasuko institutuan eredu bila

Asteartean Iraleko 12 irakasle Aralarko Mikel Donea institutuan izan ziren, ahozkotasuna lantzeko ikastetxean erabiltzen den proiektua bertatik bertara ezagutzeko

Irale Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen prestakuntzaz arduratzen den erakundea da, eta, eskaintzen dituen ikastaroen artean, R700 izenekoa dago. Haren bidez, irakasleek ikastetxeetan hizkuntza-gaitasuna garatzeko trebakuntza jasotzen dute bost astez. Irakasleendako ikasgaien artean hizkuntzaren didaktika dago. Aralarko Mikel Donea institutuaren praktika ona eta esperientziaren berri jasotzeko asteartean Altsasuko ikastetxera etorri ziren Iraleko irakasleak, testigantza bertatik bertara jaso eta zalantzak argitzeko.

Institutuan ahozkotasuna lantzeko proiektua duela zazpi urte abiatu zuten. Haren bidez, besteak beste, ikasleek ahoz komunikatzeko duten gaitasuna hobetu eta ahozkotasuna modu sistematiko eta programatuan landu nahi da. Asko dira bertan parte hartu duten eta hartzen duten irakasleak. Kanpoko eragileen balorazio ona ere jaso du. Horren adibide da Hezkuntza Departamentuak 2013-2014 ikasturtean emandako ahozko hizkuntza irakasteko egitasmoari emandako Praktika Ona saria.

BERGARA ATABOKO PRESIDENTEA: Altsasuko udakl kirol azpiegiturak kudeatzen dituen enpresak administrazio kontseilua berritu du eta Manuel Bergara da presidente berria. Enpresaren egoerari buruz hitz egiteko aurreko buru Asun Fernandez de Garaialderekin elkartuko da.

ezkaatza >>

SAKANA

Hizkuntza eskubideek sendatu beharra dute

Arartekoak herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko neurri eraginkorrak eta plantilla organikoa egokitzea eskatu dizkio Nafarroako Gobernuari. Etxarriko osasun etxeko zerbitzu guztiak euskaraz eskaintzeko 592 herritarrek aurkeztutako eskaerari erantzun hori eman dio Arartekoak

Kanpaina aurrera eraman zuten erakunde batzuetako ordezkariek egin zuten balorazioa: Ainhoa Zabala (AEK), Itsaso Ganboa (EHE), Aitziber Etxaiz (Iñigo Aritza ikastola), Iñaki Mundiñano (Aralarko Mikel Donea institutua), Izaskun Errazkin (Mank-eko Euskara Zerbitzua) eta Eneka Maiz (Etxarriko alkatea).

Etxarri Aranazko osasun etxeko zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskubidea aldarrikatuz 592 sinadura jaso ziren udaberri akaberan Sakanan. Haiek Osasun eta Hezkuntza Departamentuei aurkeztu zitzaizkien garilaren 8an (Nafarroako Gobernuak lastailaren erdi aldera arte du erantzuna emateko). Nafarroako Arartekoari eta Hizkuntza Eskubideen Behatokiari ere kexaren berri eman zitzaien.

Francisco Javier Eneriz Olaetxea arartekoak bere ebazpenean legeak herritarrei eskubide hori aitortzen diela dio. Horregatik, Osasun eta Hezkuntza Departamentuei bi iradokizun egin dizkie. Batetik, herritarrek hala erabakitzen dutenean, osasun zerbitzuko eta Emakumeen Laguntza Zentroko langileekin harremanak euskaraz izateko eta orientazio psikopedagogiakoa euskaraz jasotzeko eskubidea bermatzeko neurri eraginkorrak hartu ditzatela lehenbailehen.

Bestetik arartekoak gobernuari administrazioko eta bere erakunde autonomoen plantillaren hizkuntza eskakizunak zehaztea eskatu dio. Hau da, zein lanpostutan den euskaraz jakitea nahitaezko eta zer jakite maila behar duten, eta zein lanpostutan hartu behar den euskaraz jakitea merezimendutzat. Azken batean, hori guztia arautzen duen 203/2001 Foru Dekretua eremu euskalduneko errealitate soziolinguistikora, herritarren eskaerara eta herritarrei aitortutako hizkuntza-eskubidetara egokitzea.

Argudioak

Bi iradokizun horiek egiteko Enerizek legedia izan du oinarri. Gogora ekarri du Euskararen Legeak herritarrek administrazio publikoarekiko harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea dutela eta, "beraz, eurek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean atendituak izateko eskubidea dute". Hizkuntza eskubideak gauzatzeko administrazioek "beharrezko neurriak hartuko dituzte eta beharrezkoak diren baliabideak jarriko dituzte eskubide horiek progresiboki bermatzeko" eta "euskara eskakizuna duten lanpostuak zehaztuko dituzte".

Arartekoak azpimarratu du legeak aipatzen duen progresibotasuna gaur egun ezin dela herritarren eskubidea betetzeko muga izan, "1986an onartutako legea baita, eta 30 urte pasatu baitira". Legearekin batera, Arartekoak dio aintzat hartu beharko liratekeela, kexak duen "babes handia" eta Etxarriko zerbitzuak hartzen duen eremuko errealitate soziolinguistikoa, bertan euskara "hedapen eta erabilera handiko hizkuntza baita".

Nafarroako Gobernutik arartekoari gobernurako programa-hitzarmenean Sakanatik egindako eskaerak bideratzeko neurriak aurreikusiak daudela adierazi diote. Hala ere, bi departamentuek Enerizen txostenari erantzun beharko diote.

Balorazioa

Osasun zerbitzuen euskalduntzea eskatuz kanpaina abiarazi zuten erakundeen izenean Etxarri Aranazko alkate Eneka Maiz Ulaiarrek Arartekoaren ebazpenaren balorazio "positiboa" egin zuen. "Gure eskakizunak babestu eta indartu ditu". Nafarroako Gobernuari zuzenduta "jauzi kualitatiboa" egiteko eskatu zion. "30 urte luzez Nafarroako Gobernua lege murriztaileak jarri eta horiek bete eta garatzeko oztopoak jartzera mugatu da. Bada garaia behingoz herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko neurriak hartzeko. Horretarako ezinbestekoa da plantilla organikoan hizkuntza eskakizunak aldatzea. Aukera hori du Nafarroako Gobernu berriak".

Eta gaineratu zuen: "30 urtez Vascuenceren Legeak bide eman badu arau eta lege agindu are diskriminatzaileagoak egiteko, bada garaia Lege hori aldatzeko indarra egiteko. Nafarrok zatitu egiten gaitu eskubideak jaio edota bizi garen tokiaren arabera aitortuz. Ez da gai izan, gainera, aitortutako eskubide horiek gauzatzeko: ezin dugu euskara ezta euskaraz ikasi hainbat eta hainbat eskualdetan; hainbat komunikabide euskaldun itxi dira azken urteetan; administrazioak baztertuak... Zertarako orduan lege hori? Euskaldunok bigarren edo hirugarren mailako nafar izaten jarraitzeko?" +www.guaixe.eus

Lau eskaerak

Sinatzaileek, Etxarri Aranazko Osasun Etxeko eta han dagoen Emakumeari Laguntzeko Zentroko zerbitzu guztiak euskaraz jasotzeko 3 neurri hartzea proposatu zuten:
- Zerbitzu horietako lanpostuek plantilla organikoan euskara eskakizuna izan dezatela.
- Dagoeneko lanean ari diren eta beharra duten langileek euskalduntze plan bat izatea.
- Idatzizko euskarriak ere euskaraz egotea bermatu dadila.

Gainera, ikastetxeek aldarrikatu zuten Emakumeari Laguntzeko Zerbitzuko hezitzaileek ematen duten sexu-hezkuntzaren arloko orientazio psikopedagogiakoa euskaraz izan dadila Sakana, Larraun eta Leitza-Goizueta udalerrietan.

astekoa

Marian Mendiola

Neskixa eta mutikoen **biltokiak**

Hostoak erortzen hasi aurretik, pozteko moduko albistea irakurri dugu gure herriko hormetako karteletan: "Sortuko al dugu gaztetxoko bat?". "Padres de familian" –antza, orduan ez zen amarik familiatan– eta iganderoko bostetako zine saioetan gure aisialdia igarotzen genuen belaunaldikoa naiz. Geroz, bata zein bestea desagertu eta denbora-pasarako irtenbide gutxiagorekin gelditu ziren gaztetxoenak.

Era horretako baliabideen premia zegoela esanez urteak eman ditugu. Hala eta guztiz ere, makina bat belaunaldi ibili da patioetan, pilotalekuan, karriketan eta kosketan pepitak eta litxarreriak janez denbora-pasa ezin pasa; tabernetan, gaztetxean edo piperoetan sartzeko adina noiz iritsiko zain.

Egitasmo honekin 12-15 urte bitarteko gazteak daude jomugan eta polita izango da beren garapenen integralerako txokoa izatea eta kudeatzea, jubilatuek egiten duten moduan. "Helduen" mundutik eskainitako laguntza izanen dute, baina, haiek ere beren alea jarri beharko dute, hartu-eman eta elkarlan jokoan. Musu-truk ez dute asko izanen.

Neska-mutikoek "sortu" beharko dute gustura egoteko aterpea eta biltokia. Erronka polita dute aurrean. Nork bere ideiak bota, interesak azaldu, bestearenarekin adostu, guzti-guztien artean erabaki eta aurrekontuaren arabera ekintzak antolatu. Egin dezatela jolas "heltzeko" bidean sortzen den amorrua-poza, arrakasta-porrota eta eskubide-erantzukizunaren arteko lehiarekin. Utz diezaiegun esperimentatzen!!! Izango dute zer esan eta zer egin beren txokoan.

barrutik kanpora

Nire etxebizitzaren balioa

Prezio-finkatze konpainia edo zerbitzuak dira eraikin baten balioa ofizialki zehazten dutenak. Kontsumitzaile arruntak ez daki hau, eta etxebizitza bat erosteko bankuarekin hipoteka bat negoziatzen denean ez da beti arlo hauei buruz hitz egiten.

Orokorrean, bankua da prezio-finkatzeari buruz arduratzen dena eta fidagarri zaion konpainia bati zerbitzu hau agintzen dio. Aldi berean, kontsumitzaileak ere interesa izan dezake bere etxebizitzaren prezioa jakiteko, izan ere, hipoteka merkatuari buruzko legeak bezeroaren eskubidea ezagutzen du bere kabuz zerbitzu hau agintzeko: "Kreditu erakundeak, baita berezko prezio-finkatze zerbitzuak dituztenak ere, derrigortuta daude bezero batek aurkeztutako edozein ondasunen prezio-finkatzea onartzera, baldin eta prezio-finkatzaile homologatu batek egiaztatuta badago".

Prezio-finkatze konpainiek "aldez aurreko homologazioa, eskukotasuna eta sekretutasuna"ri buruzko zenbait irizpide bete behar dituzte eta Espainiako Bankuak gainbegiratzen ditu. Arautegia ere protokoloak eta mekanismoak ezartzen saiatzen da konpainia hauek finantza-erakundeen aurre haien autonomia mantendu dezaten.

Azken batean, prezio-finkatzea kontsumitzailearen jabetza da –honek ordaintzen du besterik adosten ez bada– eta beste banku etxetan aurkez dezake baliozkotasun epe barnean, hipoteka maileguen kasuan sei hilabetekoa delarik. Prezio-finkatze txostenak informazio interesgarria eskaini dezake, eraikinari eman dion balioa bidezkotu behar baitu.

Zenbat balio du prezio-finkatze batek? Prezioak libre dira eta prezio-finkatze konpainiak edo zerbitzuak ezartzen ditu. Prezioaren eragileak ez dira beti berdinak eta batzuetan etxebizitzaren balioaren, prezio-finkatzearen zailtasunaren edo eraikuntza beraren berezitasunaren araberakoak dira. Tarifak aldakorrak badira ere, ohikoena kostea 200 eta 400 euro tartekoa izatea da.

Mikel Bezunartea,
Iratxe Kontsumitzaile Elkartea

hara zer dien

Landa eremuko emakumeak

Hurrengo lastailaren 15a Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna da. 1995ean, NBEek Beijinen antolatutako Emakumeei buruzko Munduko IV. Biltzarra izendatu zen Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna, mundu osoan landa eremuko emakumeek egiten duten lana ikusarazi eta aintzat hartzeko.

Urte hauetan zehar emakumeok aurrera egin dugu gure eskubideak erabiltzen, autonomia handitzen eta baliabide ekonomiko, sozial eta kulturalak eskuratzen. Urte hauetan zehar, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategien titulartasun partekatuaren figura berria arautua izan da eta honek ekarri du emakumeek baliabide ekonomikoak, lurra eta nekazaritzako ustiategia eskura ditzaketela, eta honekin batera, autonomia pertsonalerako beste urrats bat lortu ahal dutela.

Sakana landa eremutzat hartzen da. Jende gutxik lan egiten du nekazaritzan edo abeltzaintzan. Sakana Garapen Agentziak arlo honen diagnosia eta AMIA (DAFO) egin zuen Sakana 2020 Plan Estrategikoan azaltzen denez, "azken hamarkadatan abeltzaintza eta nekazaritzako jarduerek beherakada bat jasan izan duten arren, eskualdean ustiapen kopuru adierazgarri bat egoteak sektoreari buruzko ezagutza garrantzitsu bat suposatzen duela. Bertako ustiapen gehienak familia-ustiategiak dira eta jabegoaren gehiena gizonezkoa da. Emakumeek ustiapenen herenen jabegoa soilik dute". Hala ere, sektorearen indarra moduan agertzen da Sakanan "emakumeek eginkizun garrantzitsua dutela ustiategietan, eta horrek ahalbidetzen duela jarduera modernizatzea, hirugarren sektorera bultzatzea, eta abar".

Arlo honetan Sakanako Plan Estrategikoan emakumeei buruzko datu gehiago agertu ez arren, ezta Nafarroako Akordio Programatikoan emakumeak izendatu ere ez egin, denok dakigu lurralde baten garapena lortzeko ezinbestekoa dela emakumeekin eta gizonekin, guztiekin lan egitea; emakumeen eta gizonen, guztien ekarpena edukitzea.

Ez ditugu hemen jarriko hurrengo lastailaren 15eko helburuak, emakumeek eurak jarriko dituztelako, baina legea betetzeko eta emakumeek boterea, baliabide eta onura ekonomiko eta sozialak eskuratzeko erakundeen konpromisoa espero dugu.

Emakumeen Bilgunea

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitz Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Garazi Barandalla
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK

Mank sakana

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saileurrordetza

sakanerria >>

» Arbizu

Gora txistorra!

VII. Txistorra Eguna ospatuko da Arbizun igandean, 10:00etatik aurrera

Aizaga Zeberio, Miren Mendinueta eta Monika Etxeberria zinegotziek aurkeztu zuten Txistor Eguna.

Arbizuko Udalak herrian ekoizten den txistor bikaina ezagutzera emateko, atzera ere, Txistor egunа antolatu du. Monika Etxeberria zinegotziak arbizuarrendako egun berezia izatea espero du eta gainontzekoak etzi Arbizu bisitatzera gonbidatu gaitu. Batzuk eta besteak txistorra dastatzeko aukera izanen dute. 1,5 euroren truke txistor pintxoa eta baso bat ardo ondu eskuratzeko aukera izanen da. Guztira 100 kilo txistorra banatuko dituzte, Embutidos Arbizu, Flores Estekiak eta Laket Artesanos enpresek emanak. Arbizuko kale nagusian gazta, pastelak, eztia eta bestelako produktuak erosi eta dastatzeko aukera izanen da jarriko diren 30 bat postuetan.

Txistor egunean 50 bat arbizuar ariko dira lanean aurten ere. Asko txistorra pintxoak eta ardoa banatzen ariko dira. Baina, gainontzekoak, txerriarekin eta txerrikiarekin zerikusia duten zereginetan ariko dira. Goizetik hildako txerria nola zatikatzen den erakutsiko da. Horrekin batera, tripota, txistorra, xaboia, lixiba, txantxigorri, sendabelarrak eta birikak nola egiten diren eta txerri hankak eta belarriak nola egosten diren erakutsiko dute besteek. Txerri hankak eta belarriak ondoren frijitu eta salgai jarriko dituzte. Bestalde, Argibidea elkartean pintxoak dastatzeko aukera izanen da.

Etziko ospakizunari aurre hartu diotenak eskolako eta ikastolako haurrak dira. Gaur Anastasio Razkin harategia bisitatu eta txistorra nola egiten den ikusiko dute. Hori gutxi balitz, txistorra ogitartekoa gosalduko dute. Astean zehar produktuaren inguruan hainbat jarduera izan dituzte.

Pintxo lehiaketa

Gaur despeditzen da txistorra pintxo lehiaketan izena emateko epea. Jatetxe, taberna, erakunde eta norbanakoak aurkeztu daitezke lehiaketara. Sukaldean txistorrarekin duten trebezia igandean 11:30etik aurrera erakutsi beharko dute. Lehiakideek Aldabide elkarteko sukaldean ari beharko dute eta pintxoaren 5 ale prestatu beharko dituzte. Txistor gutiziak epaituko dituztenak Javier Diaz (Alhambra jatetxeko sukaldari nagusia), Fernando Flores (Enekorri jatetxea), Castillo Suarez (idazlea), Manoli Artza (Artza jatetxeko sukaldaria) eta zozketa bidez aukeratutako arbizuar bat izanen dira. Epaiak irabazleari 300 euroko saria emanen dio.

Egitaraua

10:00etan Txistor egunaren hasiera eta azokaren irekiera.
10:00etan Arbizuko fanfarrea herrian barna.
11:00etan Nafarroako Xapiru eskolako trikitilarien bilkura.
11:00etan Aatea plazan.
11:30ean Pintxo lehiaketaren hasiera.
13:30ean Pintxo lehiaketaren sari banaketa.
15:00etan Akabera eta azokaren itxiera.

Goizean zehar txistorrak, tripotak, txantxiorrak betiko eran nola egiten ziren ikusteko aukera izanen da.

» Altsasu

Txirinbulo Intxostiapuntan

Udaleko lanen brigada obrak despeditu ondoren gazte guneko beheko solairuan dago haur eskola

Sute batek Txirinbulo haur eskolako moduluak erabat suntsitu ondoren, Altsasuko Udalak hainbat neurri hartu behar izan ditu zerbitzua egoki eskaini ahal izateko. Behin behinean umeak Txantxari ludotekan izan dira. Bitarte horretan udaleko lanen brigadak egokitzapenak egin ditu Intxostiapunta gazte guneko behe solairuan eta irailaren 28az geroztik han da haur eskola.

Javier Ollo Martinez alkateak gogorarazi du kokapen hori behin behinekoa dela eta udalaren asmoa Navarro Villoslada ikastetxea zenren lekuan haur eskola egokitzeko lanei berrekitea dela. Haur eskolako gurasoei sortutako nahasmena gogora ekarri du, baita begiraleen eskuzabaltasuna eta ulermena ere. Ollok sutea eta gero egin duten lana goraipatu du.

Haur eskolaren kokapen berriak Gazteria eta Kirol Zerbitzuen programazioetan eragina izan duela azaldu du alkateak. "Lehenak behe solairuan programatuak zituen jarduerak eta haietako batzuk orain Intxostiapuntako gimnasioan eginen dira. Han aurreikusitako kirol jarduera batzuei eraginen die". Intxostiapuntako psikomotrizitate gela erabiltzen zuen Mila Kolore, Sakanako Ezgaituen Elkartea, udalaren beste egoitza batean elkartuko da.

» Aizkorbe / Irurtzun

Irurtzun eta Berriozar arteko errepidea "bereziki arriskutsua"

Trafiko zaintza handitu egin dute istripu kopurua jaisteko

Trafiko Zuzendaritza Nagusiak (DGT) bereziki arriskutsuak diren errepide zatien zerrenda berritu du eta han NA 240A errepidea sartu du. Zehazki, Berriozarko errotondatik (6,09 km puntua) Irurtzunen Leitzarango autobidearekin (A-15) bat egiten duen (20,83 km puntua) arteko zatia.

DGT Aizkorbe eta Irurtzun zeharkatzen duen errepidea arriskutsuen artean sartu berri du. Horretarako, arriskugarritasuna izan du kontuan, hau da, izan diren istripu kopurua, haien larritasuna eta atzemandako bataz besteko abiaduragatik. 14 km horietan Foruzaingoak eta Guardia Zibilak zaintza areagotu egin duela jakinarazi du DGTk. Bestalde, arriskutsuak diren errepide zatiak publiko egitearekin batera, gidariei arreta handiz gidatzeko eta ezarritako abiadura mugak errespetatzeko eskatu diete.

Aizkorbetik Irurtzunerako errepide zatia.

Aldaketa gure bizitzaren parte da. Sentsazio berriak eta une zirraragarriak aurkitzen laguntzen digu. Irudimenaren motorra da. Hyundai Tucson berria jarrera horretatik jaio da. Bere diseinuak eta berrikuntza teknologikoek, gidatzeko duzun gozatzeko modua aldaraziko dizu.

Probatu aldaketaren poterea www.hyundai.es-en

HYUNDAI NEW THINKING. NEW POSSIBILITIES.

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A.
ALTSASU · 948 562 261 • IRURTZUN · 948 600 657 • www.autsanmiguel.com

EURO2016 FRANCE

5 URTE Km muga gabeko bermea.

Gama Hyundai Tucson: CO_2 (gr/km) isurtzea: 119-175.
Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6-7,5.

Tucson 1.6 GDi (131CV) 4X2 BD ESSENCE (18.900€) Penintsulan eta Balearetan PSP aholkatuta. BEZ, garraioa, matrikulazio zerga, promozio deskontua, konzesionarioaren ekarpena, mantenimendurako eskaintza, Plan Hyundai Solución eta Gobernuaren Plan PIVEa. Eskaintza hau Santander Consumer EFC S.A.ren bidez finantzatuko duten bezeroendako izango da, gutxienekz 13.000€ko zenbatekoarekin eta 60 hilabeteko gutxieneko epea izango duena. Finantzazioa entitatearen ikerketa eta onarpenaren pean dago. Eskaintza 2015/ 10/ 31ra arte da baliozkoa. Ikusgai dagoen modeloa: Tucson Style. Kotxearen finantzazioari lotuta dago mantenimendua. Eskaintzaren baldintzak eta mantenimendu argibideak Hyundai kontzesionarioetan edo hyundai.es-en.

» Etxarri Aranatz

Karasatorrerendako Nafarroako Txistorra Lehiaketa

Nafarroako Harakinen Gremioak antolatutako X. Nafarroako Txistorra Lehiaketa Karasatorre autozerbitzuak irabazi du. Francis Karasatorre Nagorek jaso zuen txapela eta garaikurra antolatzaileen egoitzan. Lehiaketara 55 txistorra ekoizle aurkeztu ziren. Guztien artean etxarriarrarena nabarmendu zen. Hori erabakitzeko epaileek txistorra gordinean eta frijitua aztertu zuten. Karasatorretarrak duela hiru urte hasi ziren lehiaketa horretara aurkezten. 2013ko hartan 3. sailkatu ziren. Etxarriko txistor ekoizleak ez dira beste lehiaketetara aurkeztu, baina hemendik aurrera ez dute beste batzuetara aurkeztea baztertzen.

Txistorra egilea Fracis da eta Luis anaiak saltzen du Alimentacion Karasatorre dendan. Hark esan digunez, sariaren eragina lehen egunetik nabaritu dute, eskaera deiak izan dituzte. Luisek denda eta jatetxeetatik izandako eskaerek bultzada izanen dutela uste du. Errezetaz galdetuta bizi guztikoa dela aipatu digu, amonarekin ikasitakoa dela. "Guztia naturala da, haragia, piperrautsa, baratxuria eta hestea. Dena kalitatezkoa. Eta guztia maitasun handiz egina".

Luis eta Francis Karasatorre Nagore anaiak.

Txistorraz aparte, Karasatorretarrek txorizo gozoa eta mina, arkume tripekiak eta saltxitxak egiten dituzte. Azken bi produktu horiek arrakasta handia dute, bai hemen baita Etxarri bisitatzen dutenen artean. Produktu horietako batzuk Madril eta Bartzelonako jatetxe batzuetan dasta daitezke. Kanpoan gehiago banatzeko asmoa ez dute baztertu, beti ere, kalitateari uko egin gabe.

» Etxarri Aranatz

Gazta txapelketako saritu eta parte-hartzaileak.

X. Sakanako Gazta Txapelketa

Igande eguerdian Etxarrin jokatu zen txapelketa. Bederatzi artzain sakandarrek aurkeztu zituzten euren gaztak. Lehen saria (100 euro) Unanuko Balda Artolak irabazi zuen. Bigarrena (70 euro) Izurdiagako Ezkurrarendako izan zen eta podiuma Arbizuko Araña-Etaioren gaztak osatu zuen (40 euro). Idiazabal jatorri izendapeneko Joserra Agirianok gidatuta epaile lanean aritu ziren Karrikestu elkarteko Juan Jose Etxeberria, Etxe Azpiko Jesus Mari Artieda eta Nekane Artieda unanuarra.

SAKANA

Dementziadunekin landu beharreko komunikazioaz

Horretaz ariko dira asteartean, 18:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoak antolatutako prestakuntza zikloaren hirugarren saioa izanen da heldu den asteartean. Klinikako profesionalak txandaka ari dira euren jakintza sakandarrekin partekatzen. Oraingoan Carmen Etxabarri mediku neurologoak hartuko du hitza. Bere hitzaldian dementzia duten pertsonekin nola komunikatu azalduko du. Gaitza duten pertsonei konpainia nola egin, ulermena eta entzumen aktiboa errazteko bideak azalduko ditu.

Mugimenduak erakusteko tailerra.

» Etxarri Aranatz

Akatsengatik, udalak ez du PPren mozioa aztertu

EH Bildutik jakinarazi dutenez, "erredakzio akats larriak zituen mozioak, besteak beste, ETAko biktimak kondenatzea proposatzen du"

PPko zinegotzi Juan Antonio Extremerak udalbatzak onartzeko mozioa aurkeztu zuen atzoko plenoan. Festetako txupinazoan euskal presoen Euskal Herriratzea aldarrikatuz banderolak erakutsi zirela eta halakorik udal eraikinetan ez errepikatzeko eskatzen zuen, batetik. Bestetik, ETAren hilketak eta ekintzak kondenatzea eskatzen zituen. Baita ETAk Jesus Ulaiar hil zuen Maiza kaleari izena aldatu eta Victimas de ETA izena ematea eskatu zuen.

Gehiengoa duen EH Bilduren bozekin mozioa eztabaidarako ez onartzea erabaki zen eta Extremerari hurrengo bilkuran "ongi idatzia" aurkeztea proposatu zitzaion. Alkatetzako taldeak adierazi duenez, atzera botatako idatziak "terrorismoaren apologiari aipamena egiten dio eta, besteak beste, ETAko biktimak kondenatzea proposatzen du". Koalizioaren iritziz, "erabateko zehaztasun falta da kontzeptu eta forma akatsekin mozioa aurkeztea, batez ere ardura handia eskatzen duen biktimen moduko gai delikatu batean". Prentsa bidez mozioaren berri ematean Extremerak "biktimen oinazea modu interesatuan eta alderdikoian erabiltzea" lepora dio EH Bilduk, "dena beraren eta alderdiaren publizitatea egiteko". Alkatetza duen taldeak gogorarazi du udala sortu zenetik PPko zinegotziek ez dutela batzar bakar batean ere parte hartu eta "udaleko gai bakar batean ere ez dutela interesa azaldu. Propagandan ari dira, ez zinegotzi lanean". EH Bildutik "faltsukeri handiekin, PPk etengabe gai hau Etxarri Aranazko herria iraintzeko erabiltzea gaitzesgarritzat jo" dute.

SAKANA

Birziklatzeko laguntza telefono mugikorrean

Nafarroako Gobernuak sakelako telefonoendako ReciclApp-Birziklapp aplikazioa garatu du. Mank-ek bat egin du eta aplikazioaren berri emanez QR-ak jarriko ditu ibarrean barna

Etxean sortutako hondakinak non utzi behar diren zalantza duzu? Hondakinak jaso ondoren nola birziklatzen diren jakin nahi? Zure gailu mugikorrean ReciclApp-Birziklapp aplikazioa deskargatu eta argibide guztiak eskura izanen dituzu. Nafarroako Gobernuak mankomunitateekin batera garatu du aplikazioa eta bere helburua herritarren zalantzak argitzea eta birziklatzeari buruzko informazioa zabaltzea da.

Bere gailura aplikazioa deskargatzen duenak dagokion mankomunitatea eta herria aukeratu beharko du lehenik. Behin sartuta, hondakin bakoitza nola kudeatu behar duen jakinen du. Baita garbiguneak, auzo-konpostagailuak edo edukiontzi bereziak (arropa, olioa...) non dauden ere. Aplikazioak tamaina handiko hondakinak nola jasotzen diren ere argitzen du, baita mankomunitateari buruzko informazioa eman ere.

ZABALKUNDEA

www.sakana-mank.eus web orriaren bidez deskargatu daiteke. Mank-ek aurki QR kodea duten euskarriak zabalduko ditu Sakanan barna. Hari telefono mugikorrarekin argazkia eginda deskargatu daiteke aplikazioa. Aurretik Mank-ek antzeko informazioa ematen zuen aplikazioa izan zuen.

» Altsasu

Gaztetxokoak festa iragarri du biharko

Larunbatean, 18:00etatik 00:30era Intxostia punta gazte gunean

Altsasuko gazte guneak bihar ekinen dio ikasturte berriari eta hura mustutzeko festa iragarri du. Intxostiapuntatik pasatzen diren gazteek 18:00etatik 21:00etara giza futbolinean aritzeko aukera izanen dute. Hura despedituta, 21:00etan, gazte-afaria izanen da (3 euro). Gaztetxokoaren festak Dj Sergioren dantzaldiarekin segituko du, 22:00etatik 00:30era.

ORDUTEGI BERRIA

Udaleko Gazteria Zerbitzuak jakinarazi duenez, gaztetxokoak ikasturte honetan ordutegia mustuko du. Astelehenetik ostegunera 17:30etik 20:30era zabalik izanen da. Ostiraletan, domeketan eta jai egunetan 17:00etatik 21:00etara eta larunbatetan, azkenik, 17:00etatik 23:00etara.

Bestetik, gaztetxokoan Gazte Informazio Gunea astegunetan goizez zabalik dago eta asteazkenetan, 17:00tatik 20:00etara. Gazteek dituzten zalantzak argitzeko zerbitzua da azken hori.

» Etxarri Aranatz

Mikologiaz eta botanikaz ikasteko

Igandean, 10:00etatik 17:30era Etxarri Aranazko plazan ziza eta landare erakusketa izanen da

Ziza eta landareen erakusketarekin natur zientzien museo baten antza hartuko du Etxarri Aranazko plazak. Antolatzaileak bihar goizean basora joanen dira eta jasotako zizak eta landareak sailkatzen emanen dute arratsaldea, etzirako dena prest uzteko. Denetariko zizak, landare eta belarrak izanen dira Etxarriko plazan ikusgai.

Bixente Garziandiaren, Bartzeren, eta Jose Luis Eseberriren omenezko erakusketa da etzikoa, haiek izan baitziren Etxarrin mikologia sustatu zutenak. Hartzabal elkarteak eta mikologi lantaldeak antolatu dute erakusketa, Larrañeta elkarteko mendi taldearen, udalaren eta SDI, Goierriko Zurak eta Insalus enpresen laguntzaz.

Ahora

Zer eraman izanen da, erakusketaren osagarri Etxarri Aranazko tabernetan zizekin egindako pintxoak dastatzeko aukera izanen baita. Iturri-Eder, Lekuona, Xapatero, Derry, Iratxo eta Larraza tabernetan zizekin egindako gutiziak dastatzeko aukera izanen da.

Ikasteko aukera aparta izanen da.

» Uharte Arakil

Duela bi urte bertako ikurren alde egin zuen elkarteak eta mastak jarri zituen.

Euskal Festa bueltan

Uharten Guk Gureak elkartea sortu zen 2013an. Hiru helburu ditu: memoria historikoa berreskuratzea, euskal kultura bultzatzea eta euskal nortasuna babestea. Urte hartako lastailean Euskal Astea antolatu zuen. Haren despedida gisa Euskal Festa izan zen Uharten. Elkarteak aurreratu zuen bi urtean behin antolatuko zuela ospakizuna. Eta iritsi da garaia.

Egitaraua

12:00etan Kalejira; erraldoi eta buruhandien konpartsa eta dantzariak.
13:00etan Dantzariak.
13:30ean Kantu poteoa Donostiako Kantu Jirarekin.
14:30ean Herri bazkaria.
16:00etan Popi eta Zaratrako pailazoak.
18:00etan Kontzertua: Anitaren Bilobak.
20:00etatik 23:00etara Dantzaldia Kapri taldearekin.

» Altsasu

Gaztetxearen mende laurdeneko ospakizunak aurrera

Etxajuarekin hasi ziren ospakizunak.

Astelehenean 25 urte beteko dira Altsasuko Gazte Asanbladako (AGA) kideek Socorro-etxea okupatu eta gaztetxe bihurtu zutela. Hori gogoan AGAk egitarau zabala prestatu du Mende laurdena. *Joder que buena! Orain dator onena!* leloarekin. Aste bete gehiago iraunen dute ospakizunek.

Orain artekoari dagokionez, astelehenean bertan ospakizunei hasiera emateko etxajua piztu eta auzatea izan zuten. Aldi berean, erakusketa mustu zuten Gure Etxea eraikinean. Gasteizko Errekaleor auzo autogestionatuaren berri jaso zuten astearte-an. Herenegun AGAk, plazan, batzar irekia egin zuen. Atzo, berriz, generoa eta gazteria gaia hizpide izan zuen Begoña Zabalak bere hitzaldian.

Egitaraua

» Lastailak 9, ostirala
17:00etan Haur jolasak eta puzgarriak, Foru plazan.
18:00etan Txokolate-jatea.
20:15ean AGA pilota txapelketako partidak Burunda pilotalekuan, musikaz girotua.
22:30ean Afaria gaztetxean. Ohiko lekutan izena eman.
23:00etan Gaztetxeroen arteko desafioen jarraipena: sing-star!

» Lastailak 10, larunbata
12:00etan Kalderete txapelketaren hasiera eta izen ematea Gure Etxea eraikinean.
14:30ean Kaldereteen dastatzea epaile prestuenekin! Aurten gurekin: Majaris de la Sorna, Enrike Zelaia eta Dubi eta Marisa ahizpak.
15:00etan Kalderete bazkaria, Foru plazan.
17:00etan Gaztetxeroen argazki erraldoia.
17:30ean Desafioen finala: mozkorkirolak. Ondoren, zunba-poteoa herrian barna.
22:00etan Indarrak berreskuratzeko... guztiendako magrak, gaztetxean.
22:00etan Tirri&Terry guateke jai alai.

» Lastailak 11, domeka
18:30ean Urtemugako asteko bideoen emanaldia eta ajea laguntzeko merendua, gaztetxean.

» Lastailak 12, astelehena
17:00etan Pilota partidak.

» Lastailak 15, osteguna
19:00etan Hitzaldia gaztetxean: Kurdistan, estatu islamista eta inperialismoa. Hizlariak: Askapenako brigadista altsasuarrak.

» Lastailak 16, ostirala
20:15ean Pilota partidak: 2. mailako final erdiak.

» Lastailak 17, larunbata
19:00etan AGAren pilota txapelketako final handia Burunda pilotalekuan, Peñek girotuta.

» Irurtzun

Bigarren eskuko azoka Sakanako kultura arteko zubigintzara bideratuko da

Igandean, 10:00etatik 14:00etara, bigarren eskuko azoka hartuko du Irurtzungo Foru plazak

Plazan mauka ederrak opatzeko aukera izanen da igandean.

Udazkena bete betean dugula, Itxipuru taldeak bigarren eskuko azoka iragarri du. Ohi denez, arropa, elektratresna, disko, liburu, gailu eta abarren artean mauka ederrak opatzeko aukera izanen dute bisitariek. Itxipurukoek salgai gehienak bat eta bi eurotan jarriko dituzte. Gauza gutxi izanen dira prezio horretatik gora.

Antolatzaileen helburua, alde batetik, objektuei bigarren bizi bat ematea da eta jendearen kontsumitu eta bota jokaeran eragitea, berrerabilpena sustatuz. Baina, bestetik, Itxipurukoek elkartasun proiektuak aurrera ateratzeko dirua ere lortu nahi dute. Oraingo honetan Sakanako Mankomunitatearen Immigrazio Zerbitzuaren Kultura-arteko Bitartekaritza Zerbitzuaren segida bermatzera bideratuko da etzi lortutako diru guztia.

Elkar ulertzeko

Kultura-arteko Bitartekaritza Zerbitzua (KBZ) Sakana guztian eskaintzen den zerbitzua da. Bere egitekoa sakandarren arteko ongi ulertzea sustatzea da. Mank-eko Immigrazio Zerbitzura joz erabil daiteke KBZ (648 070 710 telefonoa edo immigrazioa@sakanamank.com e-posta, Bego).

Sakandar berriekin zuzenean lan egiten duten hainbat arloetako profesionalen beharrei erantzuten die (ikastetxeak, osasun etxeak, gizarte zerbitzuak, enplegua, aisialdia, kultura...); sakandar berriek eta bertakoen mezuak egoki ulertu direla bermatzea; kultura ezberdineko pertsonen elkartzeak eragin litzakeen arrisku eta gizarte gatazkak saihestea; Magreb-eko, Afrika iparraldeko kultura sakandarrei hurbiltzea (bereziki lehenago aipatu diren zerbitzuei) baita bitartekariaren bidez alderantziz ere; zerbitzuan ari denaren etengabeko prestakuntza; gaur egun Sakanan dauden kulturen gizartearen kohesio eta elkarbizitzaren alde lan egitea; banakotik kolektibora doazen ulermen sareak sortzea eta, azkenik, magrebdarren inguruko aurreiritzi, susmo eta estereotipoekin haustea.

2010 eta 2013 urteen artean Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzei esker kudeatu zen Kultura-arteko Bitartekaritza Zerbitzua. 2013an bitartekaririk gabe geldi-tu zen Sakana. Izan ere, gobernuaren laguntza deialdian jarritako baldintzek asko mugatu zuten bitartekarien profila eta baldintzak beteko luketen pertsonak opatzea asko zaildu zuen. Joan den urteko eta aurtengo bitartekaritza eta itzulpen eskaerak boluntarioen talde bati esker egin dira.

Lan hori ordaindua izan behar duela uste dutelako aurkeztu da proiektu hau bigarren eskuko azokaren bidez sustatzeko. Aurreko urteetako kostua kontuan izanda Immigrazio Zerbitzuak 1.000 euro lortu nahi lituzke. Haietatik 200 dauden boluntarioei prestakuntza ematera bideratuta leudeke. Beste 300 euro garraio gastuetarako lirateke eta azken 500ak boluntarioei euren lana eskertzeko.

70

Kultura-arteko Bitartekaritza Zerbitzuak aurten izandako itzulpen eta bitartekaritza eskaerak. Ibarrera etorritako populazio talde nagusia Afrika iparraldekoa da eta bereziki haiekin lan egin du bitartekaritza zerbitzu horrek.

» Altsasu

Bi hilketa matxista salatzeko kontzentrazioa

Erandion eta Gizunen hilketa matxista bana izan zen eta haiek salatzeko Altsasuko mugimendu feministak deituta kontzentrazioa egin zen herenegun udaletxe parean. Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxatik adierazi dutenez, "nazkatuta gaude, oso haserre. Beste behin ere, emakumeon aurkako indarkeria kasu baten aurrean gaude, gure gaitzespen osoa eta salaketa irmoa egin nahi dugu ezer baino lehen".

Mundu Martxako kideek esan dutenez, "kontziente gara, emakumeon aurkako indarkeriak ez duela etenik, eta horren aurrean ezin dugu gure amorrua, nekea eta haserrea besterik adierazi". Erasoek etenik ez dutela nabarmendu eta Euskal Herrian aurten 6 emakume erail dituztela azpimarratu dute. Halako gertakarien aurrean ez isiltzeko eta emakumeek aske bizitzeko duten eskubidea aldarrikatu dute.

40 bat pertsonek salatu zituzten azken hilketak.

SAKANA

Herriak libre aldarrikatzera

Astelehenean, 12:00etan, Iruñeko Antoniuttitik abiatuko den manifestazioan parte hartzera deitu dute

Herriak libre dinamikak Askapenako bost kideren kontra Espainiako auzitegi nazionalean eginen den epaiketa salatu nahi du. Astelehenerako manifestazioa deitu du Iruñean eta horrekin batera, Espainiako estatuaren kontra Euskal Herrian eta munduan barna egin diren herri epaiketetako epaiak batean bilduko dira.



Lekuko, defentsa, akusatu, fiskal eta epaileak izan ziren epaiketan.

Epaiketa horietako bat Altsasun egin zen ostiralean. Lekukoen aulkian gazte torturatu eta espetxeratu bat eta Hego Amerikako jatorrizko herrietako ordezkari bat zeuden, besteak beste. Akusatuen aulkian, berriz, ekonomia, politika, eliza eta hedabideetako ordezkariak. Akusazioak eta defentsak aurkeztutako proben ondoren espainiar estatua errudun jo zuen epaileak: "Abya Yala-n mendeetan egindako sarraskiengatik, OTANeko kide izan eta inperialismoa yankiaren interesak babesteagatik, Sahararen ukazio eta zapalketen konplize izateagatik eta estaturik gabeko nazioen espetxe izateagatik".

» Etxarri Aranatz

Sakabanaketaren salaketa eta lan isilari aitortza

Euskal presoei ezartzen zaien sakabanaketa politika bukatzeko eskatuz larunbatean kontzentrazioa egin zen Etxarrin Etxerat elkarteak deituta. Jendearen artean zortzi furgoneta egon ziren. Haietan ibarreko preso bakoitzaren izena, dagoen espetxea eta hura dagoen distantzia ageri ziren. Horrela Mirentxin Gidariek egindako lan isila aitortu nahi izan zuen Etxeratek. Izan ere, gidari horiek, presoen senide eta lagunak espetxeetara eramaten dituzte, haiei nekea arintzeko edo istripu arriskua eta diru xahutzea txikitzeko. 15 urte daramate horretan

Mirentxin gidariak omendu zituen larunbatean Etxeratek.

gidari horiek. Mila bat dira, baina euskal presoak sakabanatuak dauden 76 espetxeetatik soilik 15era iristeko gaitasuna dute. Gidari izateko gonbitea luzatu zuten Etxerat-etik.

Etxerat-etik Etxarriko taldea indarberritzeko deia egin zuten: "Nafarroan preso eta iheslari gehien duen herria da. Sakanako preso eta iheslariak Frantzia eta Espainiako Estatuetan sakabanaturik daude, baina baita itsasoaren bestaldean ere. Horrek sekulako ahalegina eskatzen digu". Preso eta iheslarien senideak batzen dituen elkartekoendako sakabanaketarekin bukatzeko "behar-beharrezkoa da gure muga ideologiko eta politikoetatik kanpo aliatuak bilatzea eta, are gehiago, muga horietatik barna ere denok norabide berean bultzatzea".

SAKANA

ELAk CCOO liberatu sindikalaren soldataren inguruko salaketa egin du

Ibarreko CCOOko ordezkariak Nafarroako aurrekontuetatik kobratu duela salatu du ELAk. Halakoak ukatu ditu CCOOk

ELA sindikatuak azaldu duenez, "UGTko eta CCOOko zenbait arduradunek haien soldata Nafarroako aurrekontuetatik jasotzen dute zuzenean". ELAren arabera Nafarroako Enplegu Zerbitzuak (NEZ) "ustez enplegu heziketara zuzenduriko zenbait hitzarmen UGTk eta CCOOk euren liberatu sindikalen soldatak ordaintzeko erabili dira zuzenean". Aldeen artean sinatutako lau hitzarmenetan "euren soldataren portzentaje bat Nafarroako aurrekontuetatik zuzenean ordaintzen dela egiaztatu daiteke". ELAk azaldu duenez, CCOOko Sakanaren arduraduna agertzen da zerrenda horretan eta aurrekontuetatik "portzentaje txikiagoa" jaso zuela adierazi du. ELAk egun dagoen eredua eraistea beharrezkotzat jo du.

CCOOk ELAk egindako salaketak ukatu egin ditu: "egiazkotasunik ez dute eta ELAk NEZen eta harekin ari garen sindikatuen aurka duen kanpainaren beste atal bat besterik ez da". CCOOtik azaldu dutenez, "programa finalistetarako kontratatutako pertsonak tekniko profesionalak dira, hitzarmenak markatutako arloan aritzen direnak. Interes orokorreko jarduna da haiena". Sindikatuak gogorarazi du programak NEZek fiskalizatzen dituela eta estatuak egindako ebaluazioek programen emaitza onak nabarmendu dituztela gaztigatu du. CCOOk ELAri zuzenketa eskatu dio.

» Ahal Dugu hauteskundeetara bakarrik aurkeztearen alde

Podemos-Ahal Duguko Senaturako hautagai Iñigo Muerza bertan zela, abenduaren 20ko hauteskundeetara begira informazio bilera egin zen astelehenean. Ahal Dugu eta batzeari buruz hizketatu ziren.

Ahal Dugutik adierazi dutenez, "beste alderdien ideiak onartuta ere, balio asanblearioa eta parte hartzea defendatzen dugu, ez paktu interesatu ezta alderdien ildoak ere". Pertsonak "ardatz eta erdigune hartuta, pertsona guztien ahotsa alderdi bakoitzaren barruan entzuna izatearen aldekoak gara, bizio hierarkiko bertikaletan erori gabe". Astelehenean egindako bozketan Ahal Dugu hauteskundeetara bakarrik aurkeztea erabaki zuten, "aldaketarako tresna den Ahal Dugun parte hartu nahi duten pertsonak integratuz".

Heldu den astearterako alderdiak bilera berria deitu du , hauteskunde programan gehitu daitezkeen ideien ekarpenak jaso nahi dituzte. 19:00etan izanen da, Gure Etxea eraikinaren beheko solairuan.

» Etxarri Aranatz

Axio gogoan

Bihar 36 urte beteko dira Juan Inazio Erdozia Larraza, Axio, Lizarrustiko portuan hilik agertu zenetik. Etxarriko ezker abertzaleak *Oroimena eta Askatasuna* leloarekin hitzaldi-ekitaldia antolatu du biharko. 11:30ean Etxarriko kultur etxean Antton Lopez, Kubati, preso ohiak hartuko du hitza.

SAKANA

Maizek Uemako zuzendaritzan segituko du

Udalerri Euskaldunon Mankomunitateak (Uema) legegintzaldi berriko aurreneko batzarra egin zuen Azpeitian, larunbatean. 11 kideko zuzendaritza taldea eta presidentea aukeratu ziren. Azken kargu hori Josu Labaka zinegotzi azpeitiarrarendako izanen da. Etxarri Aranazko alkate Eneka Maiz Ulaiarrek beste lau urtez jarraituko du Uemako zuzendaritza taldean. Zuzendaritzan Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako ordezkariak daude. Bestalde, EH Bilduko 7 kide, EAJko 3 eta independente bat daude.

73

Gaur egun Uemako kide diren udalak, haien artean daude Arbizu eta Etxarri Aranatz.

»

Marañon NUKFko bokala

Larunbatean berritu zen Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa (NUKF). Lodosako alkate Pablo Azkona aukeratu zuten federazioko presidente 833 aldeko botorekin. Cintruenigoko alkate Raquel Garbayok 242 boto eskuratu zituen eta Olloko alkate Francisco Javier Perezek 84. Lehendakari ordeak izanen dira biak. Bokalak ere aukeratu zituzten eta horien artean dago Arbizuko alkate Karmele Marañon Chasco.

GRUPO TANATORIO IRACHE
TANATORIO TALDEA
948 197 070
Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza
www.tanatoriosirache.com

Hainbat aukera

Galdetu

948 564 275

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu

Bidali mezua zorion@guaixe.eus-era edo hots egin 948 564 275 telefonora

Maria Pilar Saenz Castro

(Mertxe Fernandez Saenz, Iñigo Aritza ikastolako juntakidearen ama)

Une latz hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin.

Iñigo Aritza ikastolako guraso, ikasle eta langileak

GRUPO Funeraria VASCONGADA Ehorzketak TALDEA
Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**
www.funerariavascongada.com
24 ORDUZ: 943 106 222 • 943 376 980

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK
2 TEKNOLOGIA
3 LANA/NEGOZIOAK
4 DENETARIK
5 IBILGAILUAK
6 HARREMANAK
7 AISIA/KIROLA
8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne).
Argazki bakoitzeko 3€.
Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan.**
Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en.

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.eus

Erosi/ saldu

SALDU

Kanarioak salgai Olaztin. Telf. 606 43 74 38

Opatutakoak

Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objetu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

Ikastaroak

Olaztiko Erburua kiroldegian ikastaroen eskaintza (urria-maiatza). Izen emate epea zabalik. Yoga, pilates, aero-dance, indoor zikloa, mantentze soinketa. Izen emateak eta argibideak: Erburua kiroldegian edo 948 56 45 12 telefonoan.

Psikomotrizitate saioak. 2 eta 4 urte bitarteko haurrentzat. Ostegunetan Kattuka Haur Eskolan (Arbizu). Interesa izatekotan, hots egin 948 56 70 09ra edo info@kattuka.com-en.

Homeopatia klasiko ikastaroa. 8 saio. Urriaren 28an hasiko da. Asteazkenetan, Kattuka Haur Eskolan (Arbizu). Familientzat gidatua. Emailea: Konny Dieterich Voss. Interesa izatekotan, hots egin 635 75 36 65 telefonora, www.homeopatiafamiliar.net

Oharrak

Etxarriko irakurle taldea. Lastailaren 29an, 19:00etan, Etxarriko liburutegian elkartuko dira Inere Nemniroskyren "Arimen maisua" liburuaz hizketatzeko.

Odol-emaileak. Urriaren 29an Arbizun eta Lakuntzan, arratsaldez.

GoiEner Iruñean. Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10 , sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaltzen eta finantzatzen: http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral Kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural Kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.eus.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatrikulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorrik. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioa, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, eztia, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarrin jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalei, eta baita etorkin beraiei ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzen, astearteetan Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakana-mank.com posta elektronikoan.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen astearteetan, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

JAIOTZAK

- **Jurgen Beregaña Andueza,** irailak 14, Lizarragan.
- **Haizea Barbarin Mugica,** irailaren 30ean Ihabarren.
- **Alar Lopetegi Luis,** urriaren 2an Lakuntzan.
- **Stefan Corduneanu Corduneanu,** urriaren 2an Irurtzunen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

Izan zaitez Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzen du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu. Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunean.

Iparraldeko Ikastolak laguntzeko. Bi kontu zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

Garraio laguntzarako diru bilketa. Sortzen Ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduan egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleen garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxan hurrengo kontu zenbakia zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

kirola >>

TXIRRINDULARITZA

RURAL KUTXAK 28 GARAIPEN: Sakanako talde afizionatuak 28 garaipen lortu ditu denboraldi honetan. "Arrakastaz betetako denboraldia izan da, errepikatzeko zaila. Ezin da gehiago eskatu" azaldu du Alberto Mazkiaran zuzendariak.

Aizkolaria

Ezin du gehiago

Nazabal txapeldunordea, Iker Vicente txapeldunaren eta Juan Jose Lopez Azpilikuetaren ondoan.

Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketa:

1.	Iker Vicente (Otsagi)	30:17.30
2.	Floren Nazabal (Etxarri)	31:56.81
3.	Juan Jose Lopez (Lezaun)	33:32.34
4.	Jon Rekondo (Leitza)	34:33.45
5.	Ruben Saralegi (Leitza)	35:22.92

Disko-hernia arazoak ez dira konpondu eta aizkoratik erretiroa hartzea erabaki du Floren Nazabalek igandean Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketan aritu eta gero

Floren Nazabali bizkar-hezurrak makina bat arazo eman dizkio. Etxarri Aranazko aizkolari handiak, disko-hernia dela eta, oinaze askorekin ibili behar izan du. Aurreko urtean, esaterako, Etxarriko ferietan jokatutako Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketa irabazi eta gero segituan jokatzekoa zen Euskal Herriko Txapelketan aritzeari uko egin zion, Nafarroako finalean oinazez beteta aritu eta gero. Aurten plazatatik kanpo ibili da eta denetarik egin du disko-herniako arazoak gainditzeko. Berriki Nafarroako txapelketako kanporaketan eta Euskal Herriko Txapelketako kanporaketan aritu zen etxarriarra eta bazirudien ongi zebilela; finalerako sailkatu zen eta igandean Nafarroako bere 10. txapela litzatekeena janzteko faborito nagusia zen.

Baina guztia joan da pikutara, igandeko finala baino bi egun lehenag,o atzera ere, disko-hernia arazoekin hasi baitzen, oinaze ikaragarriekin. Etxarriarra finalean aritu edo ez zalantzan izan zen, baina azkenean Etxarriko ferietan jokatutako Nafarroako finalean aritzea erabaki zuen. Oso gutxik zekiten zein zen bere egoera. Ongi hasi zen, aurretik, baina finala bukatzeko bi enborren faltan Iker Vicentek hartu zion aurrea eta bera izan zen txapelduna. Proba bukatu eta berehala iritsi zen sorpresa: Nazabalek argi utzi nahi izan zuen Etxarrikoa bere azken plaza izango dela, erretiroa hartzen duela. Euskal Herriko finalean ez da ariko eta bere ibilbideari agur esan dio.

Txapeldunordea

Uharte Iruñeko kanporaketan sailkatutako 5 aizkolariak hartu zuten parte igandean Etxarrin jokatutako Nafarroako I. Mailako Aizkora finalean: Floren Nazabal etxarriarra, Iker Vicente otsagiarra, Juan Jose Lopez lezaundarra, Jon Rekondo leitzarra eta Ruben Saralegi leitzarra. Lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko erdibitu behar zituzten. Jendetza bildu zen Etxarriko pilotalekuan. Jakina, txalo eta animo gehienak Nazabalendako ziren. Izan ere, bera zen faborito nagusia. Inork gutxik zekien, atzera ere, oinazeekin hasi zela. Etxarriarra ongi hasi zen, gainontzekoei aurrea hartzen. Atzetik 18 urteko Iker Vicente bere erritmoan zetorren lanean, behetik gora eginez. Florenek txapela irabaziko zuela zirudien, baina zortzigarren enborrean trabatu egin zen; ezinean ibili zen etxarriarra eta minutu ederrak galdu zituen. Gaizki pasatu zuen, oinazeekin, ezinean. Hor izan zuen bere aukera Iker Vicentek. 18 urteko gazteak onartu zuen "nahiko sufritu" zuela, baina sekulako lana egiten jakin zuen eta finala irabaztea lortu zuen (30:17). Vicente Nafarroako lehen mailako txapela jantzi duen aizkolari gazteena izan da. Floren Nazabalek bigarrena postuari eustea lortu zuen (31:56), aizkorakada bakoitzeko zaleen txaloak jaso zituelarik.

Bukaeran aitortu zuen Nazabalek Etxarrikoa bere azken plaza izan zela. Pena izan zen txapelarekin ez erretiratzea. Egun historikoa, aizkoran. Nolanahi ere, Euskal Herriko maila nagusiko 6 txapelekin eta Nafarroako 9 txapelekin esan du agur Nazabalek, Urrezko Aizkora eta beste hamaika txapelketa eta torneo ere irabazita.

Floren Nazabalen **palmaresa**

Euskadiko maila nagusiko aizkora txapelketak: 6 aldiz txapelduna (2002, 2004, 2007, 2008, 2009 eta 2012).
Nafarroako lehen mailako aizkora txapelketak: 9 aldiz txapelduna (2001, 2002, 2007, 2008, 2009, 2010, 2012, 2013 eta 2014).
Nafarroako Bikotekako aizkora txapelketak: 8 aldiz txapelduna (1994. urtean Antonio Jaunarena bikote zuela, 1995. urtean Antonio Senosiain bikote zuela, 2002. urtean Juanjo Lopezekin, 2003. urtean Juanjo Lopez bikote zuela, 2005. urtean Juanjo Lopezekin, 2007. urtean Antonio Senosiainekin, 2010. urtean Jose Juan Barberenarekin eta 2011. urtean Jon Rekondorekin).
*Lorpen hauei Urrezko Aizkorak gehitu behar zaizkio.

gertutik >>

Floren Nazabal

Aizkolaria

Floren, gaur (igandea) Nafarroako txapeldunorde izan zara.
Bai, txapeldunordea. Finalean aurretik joan naiz baina egur batean geratu naiz, Ikerrek aurrea hartu du eta txapela berarendako izan da.

Detaile polita txapelduna izandakoak txapeldun berriari txapela janztea...
Bai hala eskatu didate. Hori normala da, niri ez zitzaidan inporta. Errelebo bezala bera dator eta berari txapela jartzea normala da.

Erreleboa heldu dela diozu, eta zuk erretiroa oraintxe bertan onartu duzu.
Bai, nik garbi nuen. Aurreko urtean erretiroa hartzea nahi nuen, baina lesioa zela eta gauzak ez zitzaizkidan nik nahi bezala atera, eta aurten ere ez. Astelehenean, Pilarika egunean, Euskal Herriko finala dut jokatzeko, baina ez naiz azalduko. Gaur bukatuko da nire historia.

Floren, lesioarekin oinazeak jota egon zara azkeneko urte luze honetan, eta azken bi egunotan Nafarroako finalera atera edo ez atera ibili zara...
Nik dudana bizkar hezurrean desgastea da. Disko-hernia dut, diskoak desgastatuta, eta duela bi egun berriro oinazeak hasi ziren. Azken honetan ezinean nago eta horrela ez dago aritzerik.

Hortaz, gaurkoa izan da zure azkeneko saioa?
Bai, gaur izan da nire azkeneko plaza, gaur bukatzen da historia, jaioterrian.

Hemendik aurrera Aizkora Eskolan irakasle ikusiko zaitugu?
Aurten ez naiz Aizkora Eskolan ibili, denbora faltagatik eta erdoziatarren esku utzi dugu eskola. Baina, beno, bateonbati lagundu behar bazaio pozik lagunduko diot.

Trial bizikleta

Nafarroako Trial Bizikleta Txapelketa Arakilen

Bihar, 10:00etatik aurrera Biaizpeko arratean

Irantzu Trialbici klubak eta Nafarroako Txirrindularitza Federazioak antolatuta, Nafarroako Trial Bizikleta Txapelketa hartuko du Arakilek. Txapelketa 10:00etan hasiko da Biaizpeko arratean eta Trialbici Zona Norte Openerako baliagarria da. Bertan trial bizikletan iaioak diren iparraldeko espezialista onenak lehiatuko dira. Antolakuntzak zehaztutako ibilbide eta eremu ikusgarriak gainditu beharko dituzte.

Mendi lasterketa BTT

Amaia Crespo Rural Kutxa BTT Kopako txapelduna

Diego Latasak (Saltoki) irabazi du Rural Kutxa BTT Kopa. Mikel Otxoa 32.a izan da sailkapen absolutuan, Iñigo Otxoa 39.a eta Mikel Irigoien uhartearra 41.a. Emakumezkoetan Burunda Txirrindularitza Taldeko Amaia Crespo izan da Rural Kutxa BTT Kopako txapelduna.

Atletismoa

Sakandarrak X. Orreaga-Zubirin

X. Orreaga-Zubiri maratoi erdian (21,5 km), 973 korrikalari aritu ziren, tartean sakandarrak, eta Antonio Etxeberria (1:13:19) eta Ana Llorens (1:33:50) izan ziren azkarrenak.

Sakandarrak X. Orreaga-Zubirin:

1.	Antonio Etxeberria:	1:13:19
36.	Iñaki Alvaro (Alts)	1:28:42
138.	Juan Carlos Villalobos (Alts)	1:37:22
164.	Martin Somocurcio (Alts)	1:38:53
197.	Iñigo Etxarte (Irur)	1:40:30
221.	Xabier Aierdi (Alts)	1:42:10
250.	David Mutiloa (Irur)	1:42:59
258.	Juan Pedro Ariz (Bak)	1:43:27
293.	Iñigo Rekalde (Irur)	1:44:59
361.	Javier Riezu (Alts)	1:47:10
391.	Jon Arellano (Alts)	1:48:24
461.	Ignacio Arratibel (Alts)	1:50:51
571.	Joseba Rivas (Irur)	1:56:08
668.	Raul Mendoza (Zior)	2:00:56
772.	Jesus Arzoz (Irur)	2:06:05
810.	Enrique Segura (Arb)	2:09:21

Pilota

"Xalaren kontra asko hobetu beharko dut"

Ostegunean pilota aukeraketa zuten Ezkurdiak eta Xalak. Biak sentsazio onekin daude. "Ondo aurkitzen naiz, baina jabetzen naiz kaiolak asko exijitzen duela, batez ere orain dauden pilotari gazteek jokatzen duten erritmoa ikusita." azaldu zuen Xalak. Ezkurdiak ere ongi zegoela onartu zuen "Sentsazio onak ditut. Arretxeren kontra uste baino errazago irabazi nuen, berak ez zuelako egun ona izan. Hala ere, Xalaren kontra asko hobetu beharko dut; gehiago asmatu beharko dut" adierazi zuen Arbizuko aurrelariak, kaiola "asko gustatzen zaidan distantzia" dela gaineratuz. "Lehen partidako tentsioak uxatu ditut, baina Xala gainditu nahi badut hobetu beharreko gauzak baditut. Xalak etxean jokatzen du eta horrek abantaila pixka bat ematen dio. Miarritzeko frontoia oso noblea da, lau t´erdirako egokia. Errestoa izan daiteke gakoetako bat eta asko mugitu beharko dut. Xalak eroso jokatzen badu teknikoki oso konpletoa da eta min asko egin nazake" nabarmendu zuen Ezkurdiak.

Lau t´erdia: Ezkurdia Arretxeren gainetik pasa zen

Arbizuarrak Xala izango du aurkari larunbatean, 18:00etan, Miarritzen (ETB1, Nafar Telebista)

Asteburuan hasi zen lau t´erdiko txapelketa. Joseba Ezkurdiak Iker Arretxe izan zuen aurkari Tolosan. Ez zen Iker Arretxeren eguna izan, inondik inora. Hasieran soilik aurreratu zen Arretxe II.a, 4 eta 3, baina hortik aurrera Ezkurdiak hartu zuen aginte makila eta ez zuen bukaerara arte askatu. Arbizuarrak 7 tantotan utzi zuen Arretxe. Ezkurdia Arretxe baino askoz ere gehiago izan zen.

Ezkurdiak Xala izango du hurrengo aurkaria bihar, Miarritzen (ETB1, Nafar Telebista). Partida lehiatua izango da. Biek dute gustuko distantzia motza. Ezkurdiak final laurdenetatik aurrera ezin izan du egin eta Xalak esperientzia askoz zabalagoa du; kaiolaren zirrikitu guztiak ezagutzen ditu eta finalerdietatik finalera egin nahi du salto behingoagatik.

Botxa

Elkarteen arteko txapelketako finalistak. Eskuinean, behean, Goldarazena.

Goldarazena Banakako Botxa Txapelketako txapelduna

Xabier Agustinori 15 eta 5 irabazi zion finalean. Elkarteen Arteko Botxa Txapelketan Amaia izan zen garailea

Botxaz betetako asteburua izan zuten Irurtzunen. Lehenik eta behin, ostiralean Banakako Botxa Txapelketako aurrefinalak eta finalak jokatu ziren. Txapelketan 17 botxalarik parte hartu zuten, lau multzotan banatuta. A multzoan Santos Iragi, Mikel Goldarazena, Goio Fernandez eta Txeli Garcia lehiatu ziren, B multzoan Xabier Agustino, Asensio Galartza, Alicia Navarro eta Julen Iragi, C multzoan Tere Otsoa, Txutxurrin, Pakita Arruabarrena, Mikel Ollo eta Luis Arrasate eta D taldean Tere Yeregi, Iñigo Carballo, Juanito Maestre eta Xabier Goñi. Aurre finaletan, Mikel Goldarazenak 12 eta 8 irabazi zion Julen Iragiri eta Santos Iragik 9 eta 12 galdu zuen Xabier Agustinoren kontra. Final handian Mikel Goldarazena izan zen txapelduna, Xabier Agustinori 15 eta 5 irabazi eta gero. Eta 3. eta 4. postuak zehazteko partidan Julen Iragik 12 eta 8 irabazi zion Santos Iragiri.

Taldekakoan Amaia txapeldun

Larunbatean eta igandean Iratxo elkarteko botxategiak Elkarteen Arteko Botxa Txapelketa hartu zuen. 10 talde lehiatu ziren, Amaia, Txantrea, Antsoain, Irurtzun eta Berriozar elkarteetakoak. 3. eta 4. postuak zehazteko finalean, Irurtzunek (Mikel-Alicia) 10 eta 8 hartu zuen menpean Berriozar (Iker-Josu). Eta final handian Amaia (Jose Mari-Felix) izan zen txapelduna, Txantreari (Rufles-Txus) 15 eta 8 irabazita.

Mendia

Euskal Herriko erdigunera martxa antolatu dute igandean

Iratxok, Sakanako Mendizaleak eta Independentistak sareak antolatuta, hiru zutabe aterako dira eta hirurek bat egingo dute erdigunean

Irurtzungo Iratxo mendi taldeak, Sakanako mendizaleak eta Independentistak sareak Euskal Herriko erdigunera mendi martxa burutuko dute lastailaren 11n, igandean. Martxa hiru toki ezberdinetatik aterako da goizeko 9:00etan: Irañetatik, Ollotik eta Unanutik. Hiru zutabeek bat egingo dute erdigunean eta ekitaldi bat burutuko da 11:30ean, mugarrian.

2011ko lastailaren 30ean beste martxa bat egin zen Euskal Herriko erdigunera, Sakanako mendi taldeek eta Independentistak sareak antolatuta. Arrakastatsua izan zen eta aurten berreskuratzea erabaki dute. "Gure mendi tontorrak euskal herritarren aldarrikapenen lekuko izan dira. Mendizaletasuna beti egon da euskal nortasunari, askatasunari, naturari eta herri aldarrikapenei lotuta. Mendiak gure herriaren historiaren lekuko erraldoi isilak dira. Erdigunea Euskal lurraldeen erdigunea da, lurraldetasunaren adierazgarri. Eta zentzu honetan, mendi martxa hau "lurraldetasunaren martxa" da, eta lurraldetasun eguna bilakatzen joango litzateke urtetik urtera: euskal herrialde guztietako jendea, Euskal Herriaren bihotzetik euskal lurralde osoari begira" azaldu dute. Martxa urtero egiteko erronka bere gain hartu dute. "Datozen urteetan Euskal Herriko mendi taldeen egutegietan data finko batekin mendi martxa hau kokatzen ahaleginduko gara" gaineratu dute.

Martxan parte hartzeko deia egin dute antolatzaileek.

Egitaraua

9:00etan Hiru zutabeen irteera Irañetatik, Unanutik eta Ollotik.
11:00etan Erdiguneko mugarrira iritsi.
11:30ean Ekitaldia: Musika, kantua, ordezkari ezberdinen hitz-hartzeak...
12:00etan Itzulera, zutabe bakoitza bere ibilbidetik.
14:00etan Irteera tokietara berriro iritsi.
15:00etan Bazkaria Irurtzunen (Txartelak www.independentistak.eus webgunen eta 943 561 853 telefonoan).

Euskal Herriko erdigunea

Euskal Herriko erdigune geografikoa 2004an finkatu zuen Félix Isasak. Euskal Herria bere osotasunean kontutan hartuta burutu zuen azterlanaren emaitza izan zen. Andia mendilerroan dago, Beriain mendi tontorretik nahiko hurbil, Olibesario sakonune edo saroian, (1236 m). Leku izugarri ederra da eta mugarria jaso zen bertan.

Motoziklismoa

Navarider Day Sakanatik pasako da

Nafarroan barna 400 kilometroko ibilbidea eginen dute motorzaleek, larunbatean, eta 10:30etik aurrera geldialdia egingo dute Irurtzunen

Navarider Day izena du Motorutas Moto Club taldeak motorzaleendako larunbatean prestatu duen jai egunak. Izena eman duten 405 motorzaleak Nafarroan barna 400 km osatuko dituzte. Iruñeko Baluarte plazatik 7:30ean abiatuta, antolakuntzak 5 kontrol gune jarri ditu: Los Arcoseko Nafarroako Zirkuitua (3 buelta emango dizkiote zirkuituari), Irurtzungo Matxain jatetxea (10:30ak inguruan) Eugi eta Zubiri (bazkaria), Izaba eta Iruñea. Bukaeran, festa antolatu dute Iruñeko Zentralen.

Nonerabili

XAGU
ALTSASU
% 5eko deskontua, 30 €tik gorako erosketa eginez gero.

LIBURUNDA
ALTSASU
%5eko deskontua papertegia eta irakurketarako liburuetan.

GOIKO LOREDENDA
ALTSASU
30 €tik gorako erosketetan % 10eko deskontua (Baratza eta garaiko loreetan izan ezik. Eskaintza ez metagarria).

MARI JOSE ILEAPAINDEGIA
ARBIZU
Garbitu, moztu eta apaindu 26 €.

FRUITIS FRUTA DENDA
IRURTZUN
%10eko deskontua fruitu tropikaletan.

EROSKI BIDAIAK
ALTSASU
%5eko beherapena, hiri hoteletako eta garraio hutsen erreserbak izan ezik. Eskaintza ez metagarria.

LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA
URDIAIN
50 €ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

LARKA
ALTSASU
100 €tik gorako erosketengatik 10€ko deskontu-balea (beherapenetan izan ezik).

LASTAI GASOLINDEGIA
ALTSASU
0,04 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.

www.guaixe.eus-en zerrenda osoa ikusgai

Atletismoa

8. Onddo Lasterketa solidarioa

www.dantzalekusakana.com
Onddo lasterketan **izena emateko**, urriaren 16ko 24:00ak arte.

Lastailaren 17an jokatuko da, Altsasuko ferietan, eta lehenengoz 5 euro kobratuko dira, Josefina Arregui Klinikaren Lagunak elkartearendako

Dantzaleku Sakana atletismo klubak, hainbat laguntzailerekin batera, 8. Onddo Lasterketa antolatu du Altsasuko ferietarako, lastailaren 17rako. Orain arte dohainik izaten zen proba, baina aurten antolakuntzak 18 urtetik gorakoei 5 euro kobratzea erabaki du, jasotako diru hori guztia Josefina Arregi Klinikaren Lagunak elkarteari bideratzeko. "Klub bezala uste dugu herrian egiten diren gauzei gure babesa eman behar diogula eta horregatik egin dugu hau" adierazi du Dantzalaku Sakanako kide Peio Bergarak.

Onddo lasterketan aurretik txikiak ariko dira, goizeko 11:00etan. 18 urtetik azpikoek ez dute inskripziorik ordaindu behar izango. "Hala ere, edonork Josefina Arregiren Lagunak elkartearekin kolaboratu nahi badu, mahai bat egonen da diru ekarpenak hartzeko. Eta baita elkarteko kide egiteko" gaineratu du Bergarak.

Josefina Arregi Klinikako Lagunen alde

Onddo lasterketaren aurkezpenean Bergararekin batera Josefina Arregi Klinikaren Lagunak elkarteko Patxi Goikoetxea zegoen. "Elkartearendako diru iturri bezala Sakana mailan maratoi bat antolatzea bururatu zitzaigun, baina berehala ikusi genuen halako ekimen potolo bat guretzako gehiegizkoa zela. Dantzaleku Sakanakoekin jarri ginen harremanetan eta hurrengo egunean bertan egin ziguten Onddo Lasterketan guretzako diru bilketa hori egitearen proposamena. Oso eskertuta gaude beraiekin. Onddo egunean bildutakoa klinikako fisioterapia gela hornitzera bideratuko dugu" azaldu zuen Goikoetxeak.

Korrika eta oinez

Onddo lasterketa, helduena, 12:00etan abiatuko da. Urterokoa zirkuitu berbera izango da (6,6 km-koa). "Ibilbidea nahiko eramangarria da, baina badago korrika egin ezin duen jendea. Horregatik, 5 km-ko beste ibilbide bat prestatu dugu eurendako, oinez egin dezaten. Hortaz, ez dago aitzakiarik eta edonork parte hartu dezake Onddo lasterketan. Uste dugu klinikarekiko ekimen honek jende gehiago erakarriko duela gure lasterketara. Gure lasterketa oso herrikoia da, ez da lehiakorra eta naturaz gozatu nahi dugu, korrikan, onddoak ateratzen diren parajean. Mundu guztia gonbidatzen dugu" azpimarratu du Bergarak. 2014an haurren proban 138 neska-mutiko aritu ziren eta proba nagusian 116 emakumezko eta 167 gizonezko. Emakumezkoen parte hartzeak izugarri egin du gora. Lehendabiziko edizioan 5 emakume izan ziren eta azkenekoan 116.

Kamisetak eta zozketak

Korrikalariek kamiseta jasoko dute. Antolakuntzak 350 kamiseta egin ditu eta jasotzerakoan preferentzia izena aurretik internetez eman dutenek izango dute. Bukaeran, guztien artean 3 onddo saski eta feriekin lotutako produktuekin osatutako 600 lote zozketatuko dira.

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

4. JARDUNALDIA

ETXARRI ARANATZ 4 – BIDEZARRA 0
LAGUN ARTEA 5 – BURLADES 1
Jardunaldi borobilean, Etxarrik Bidezarra liderrari 4 eta 0 irabazi zion, goitik behera kontrolatutako partidan. Xabat (2), Unai eta Mikel izan ziren golegileak.
Lakuntzan, 17. minuturako 2 eta 0 aurreratu zen Lagun Artea (Ander, Eneko). Burladesekoak gol bat sartu zuten, baina bigarren zatian gol festa ederra ospatu zuten lakuntzarrek. Anderrek hat tricka lortu zuen eta 5 eta 1 gailendu zen Lagun.

Sailkapena >>

1.	Gares	8 p
5.	Etxarri Aranaz	6 p
7.	Lagun Artea	6 p

Asteburuko jardunaldia

MUTILBERA - ETXARRI ARANATZ
(Larunbatean, 17:00etan, Mutiloan)
BERRIOZAR – LAGUN ARTEA
(Larunbatean, 16:15ean, Berriozarren)

ERREGIONAL MAILA. 3. multzoa

4. JARDUNALDIA

AMAIA 2 – ALTSASU 1
Lehia oso estuan, edozein taldek lortu ahal izan zituen 3 puntuak. Lehen zatian Altsasuk dominatu zuen eta Anderrek Altsasu aurreratu zuen. 2. zatian Amaia hobeto aritu zen eta bana berdindu zuen. Altsasuk aukerak izan zituen, baina Amaia izan zen garaipenaren gola sartu zuena.

Sailkapena >>

1.	Doneztebe	12 p
14.	Altsasu	1 p

Asteburuko jardunaldia

BETI ONAK – ALTSASU
(Larunbatean, 17:30ean, Atarrabian)

Futbola

Sociedad Deportiva Alsasuak futbol taldeen aurkezpena eginen du

Lastailaren 12an, astelehenean, 11:30ean Dantzalekun

2015-2016 denboraldiaren aurkezpena eginen du Sociedad Deportiva Alsasuak lastailaren 12an, astelehenean, 11:30ean Altsasuko Dantzalekun. Guztira 250 neska-mutiko arituko dira aurten futbolean trebatzen, aurrebenjamin mailatik erregional maila bitartean 13 taldetan banatuta. Talde bakoitzaren aurkezpena eginen dute asteleheneko ekitaldian. Bertan bilduko direnen artean Razesa etxeko mountain bike bizikleta zozketatuko da, Jesus Irisarrik emandakoa.

Irristaketa

Ioseba Fernandez Espainiako erlojupekoko txapelduna

Asteburuan Pista Irristaketako Espainiako Txapelketak jokatu ziren Txantrea klubeko irristaketa pistan. Erlojupekoan ez zen sorpresarik egon eta Ioseba Fernandez iturmendiarra izan zen txapelduna (24,498).

Mendi lasterketak

Garinek oroigarria jaso zuen eta podiumera igo zirenak sariak.

Etxarriko 40. txapela Larralderendako eta Perezendako

Aritz Munarriz eta Erkuden San Martin izan ziren lehen sakandarrak

Etxarriko ferietan, igandean, Udaberri elkarteak eta Etxarri Aranazko Udalak hainbat laguntzailerekin antolatutako 40. Mendira Joan-Etorria jokatu zen. Etxarri Aranazko proba Nafarroako Mendi Lasterketen Koparako azken proba puntuagarria zen.

Aurten probaren 40. edizioa zenez, antolakuntzak sariak indartu zituen. Sariez gain, 2001 urtean Juan Mari Garinek ezarritako errekorra (42:50) apurtzen zuenak 300 euroko gainsaria jasoko zuen. Proba hasi baino lehen antolakuntzak Juan Mari Garini omenaldia egin zion. Zizurkilgo korrikalariak oroigarri bat jaso zuen.

Aurreskuaren ondoren hasi zen lasterketa. 131 korrikalarik hartu zuten irteera, Etxarriko plazatik Urbasako bargara, etxarriarrek maiatza jartzen duten tokira igo eta, atzera ere, jaisteko (10 km, 1.144 metroko desnibel pilatua). Igoeran Joseba Larralde bakarrik geratu zen. "Aldea mantentzen saiatu naiz, lortu dut eta kontentu" adierazi zuen helmugara txalo zaparrada artean iritsi zen Joseba Larraldek (46:16). Berakoa Beriaingo Km Bertikalean bigarrena egitetik eta Olatzagutia-Urbasa proba irabaztetik zetorren, baina ez zuen Etxarriko probako errekorra apurtu. 40 segundora Zuhaitz Ezpeleta sartu zen (46:56) eta hirugarrena Xabier Macias izan zen (47:03).

Emakumezkoetan kros mundutik datorren Virginia Perez gasteiztarra izan zen azkarrena (55:42). Bigarrena Nerea Amilibia zarauztarra izan zen, ia 4 minutura (59:39) eta hirugarrena Irene Genbe zizurtarra (1:02:40). 50 sakandar aritu ziren eta Aritz Munarriz (48:00) eta Erkuden San Martin (1:04:56) etxarriarrak izan ziren azkarrenak.

Sakandarrak 40. Mendira Joan-Etorrian:

1.	Joseba Larralde (Bera)	46:16
7.	Aritz Munarriz (Etx)	48:00
10.	Beñat Katarain (Lak)	49:03
12.	Mikel Rubio (Irur)	49:26
14.	Joxeja Maiza (Etx)	51:01
16.	Mikel Berastegi (Arb)	52:14
22.	Fidel Jimenez (Etx)	53:12
23.	Alberto Razkin (Etx)	53:36
24.	Iñigo Maiza (Etx)	53:36
25.	Gorka Verdugo (Etx)	54:01
29.	Txomin Igoa (Etx)	54:43
31.	Mikel Sasiain (Etx)	54:54
34.	Aitor Mozo (Lak)	55:32
37.	Ander Unzurrunzaga (Etx)	55:46
42.	Noureddine Baba (Lak)	56:17
55.	Arkaitz Munarriz (Etx)	57:59
63.	Josema Leiza (Arb)	59:48
64.	Gorka Arratibel (Etx)	59:50
65.	Juan Luis Maiza (Etx)	1:00:06
66.	Juan Mariñelarena (Etx)	1:00:28
68.	Alberto Mtz. de Lagran (Etx)	1:00:38
69.	Ibon Ubeda (Etx)	1:00:42
70.	Ivan L. de Sabando (Alts)	1:00:42
71.	Alfredo Amillano (Arb)	1:00:53
74.	Kasi Estarriaga (Etx)	1:01:09
75.	Luis Areta (Lak)	1:01:10
77.	Asier Arratibel (Etx)	1:01:30
78.	Julen Arratibel (Etx)	1:01:30
79.	Asier Estarriaga (Etx)	1:01:30
82.	Bernar Garziandia (Etx)	1:01:48
83.	Andoni Goikoetxea (Etx)	1:02:13
86.	Jon Goikoetxea (Etx)	1:02:44
89.	J. Daniel Lakuntza (Etx)	1:03:20
90.	Xabier Urrestarazu (Etx)	1:04:09
93.	Erkuden San Martin (Etx)	1:04:56
94.	Igor Artieda (Etx)	1:04:59
96.	Maite Zabaleta (Etx)	1:05:25
97.	J. Antonio Salgado (Alts)	1:05:25
100.	Eneko Lazkoz (Etx)	1:05:50
102.	Axier Larrion (Alts)	1:06:36
104.	Fco. Jose Juango (Irur)	1:07:38
107.	Joana Lopez (Etx)	1:08:14
108.	Iban Verdugo (Etx)	1:08:26
109.	Maria Goikoetxea (Etx)	1:08:26
110.	Manuel Larraza (Etx)	1:08:37
112.	Aiert Lizarraga (Etx)	1:09:23
118.	J. Javier Goikoetxea (Etx)	1:12:05
121.	Anaitz Igoa (Etx)	1:12:24
126.	Aitor Kanpion (Arru)	1:17:07
128.	Patxi Atxa (Etx)	1:18:15

Areto futbola

Interren kontra galdu zuen Magnak

Magna Gurpea Xota eta Inter Movistarren arteko lehian bi taldeak parez pare aritu ziren. Inter 5 eta 3 aurreratu zen, baina berdintzea lortu zuen Magnak. Baina azken minutuan Ricardinhok Magnaren atea zulatu zuen. Bihar, larunbatean, Magna Gurpeak Elche Alverola hartuko du 18:30ean, Anaitasuna pabilioian.

Saskibaloia

Sakanako III. Saskibaloi Topaketetan aritu nahi duzu?

Izena ematea zabalik dago

Sakanako Mankomunitateak, hainbat laguntzailerekin batera –Irurtzun, Etxarri Aranatz eta Altsasuko Udalak, Altsasu eta Irurtzungo Saskibaloi Taldeak eta Andra Mari ikastola– Sakanako III. Saskibaloi Topaketak antolatu ditu. Bertan 8, 9 eta 10 urteko neska-mutikoak aritu daitezke, premini mailakoak. Topaketak azarotik maiatzera bitartean jokatuko dira, Irurtzunen, Etxarri Aranatzen eta Altsasun. Helburua saskibaloia sustatzea eta Sakanako talde eta neska-mutikoen arteko harremana bulkatzea da. Ez da txapelketa lehiakorra, eta, horregatik, ez da sailkapenik eginen.
Topaketetan aritzeko talde bat osatu behar da. Taldea osatzeko laguntzarik behar dutenek, Mank-eko Kirol Zerbitzura deitu dezakete laguntza eskatzeko lasai asko (948 464 866). Izena ematea zabalik dago Mank-en.

Automonbilismoa

Villa azkarrena Urbasako Igoeran

Asturiarrak ehuneneko eskasak atera zizkion Joseba Iraolari. Garikoitz Flores lakuntzarra laugarrena izan zen. Milaka pertsona bildu ziren proba jarraitzera

Sakandarrak 35. Urbasako igoeran:

1.	Javier Villa (BRC)	3:16.613
4.	Garikoitz Flores (BRC)	3:24.221
24.	Iban Lopez de Goikoetxea (R5 GT Turbo)	3:55.866
38.	Javier Goikoetxea (Clio Sport)	4:06.287
42.	Delfin Goikoetxea (Promo Racing Fun Boost GT)	4:07.008
48.	Andoni Lopez de Sabando (BMW 320i)	4:13.303
54.	Mikel Mendinueta (205 GTi)	4:16.494
71.	Iker Askargorta (Golf GTi)	4:41.473

*Erretiratutako sakandarrak: Iker Palacios (Speed Car), Garikoitz Goñi (Megane), Arkaitz Irigoien (R11 Turbo) eta Oier Larrañaga (AX GT).

Javier Villa txapelduna eta Garikoitz Flores lakuntzarra azken honen autoaren aurrean hitz egiten.

Aurten oraindik arrakastatsuagoa izan da Sakana Motorsport taldeak antolatutako 35. Urbasa Igoera. Parte hartu zuten pilotuengatik hasita –92 zeuden izena emanda, aurreko urtean baino 30 gehiago–, bildu ziren milaka zaleak zirela –antolakuntzak 9.000 lagun aipatu ditu– eta ohiko matxuretatik kanpo inolako arazo larririk sortu ez zelako. Izan ere, Sakana Motorsportek beti zaindu izan du segurtasuna, hori da bere lehenengo helburuetako bat, baina aurten are gehiago. "Beti jartzen ditugu eskatzen digutena baino neurri gehiago. Beste urte batzuetan segurtasun neurriak bikoitzak izan badira, aurten hirukoiztu egin ditugu" adierazi zuten antolakuntzatik.

35. Urbasako Igoera Nafarroako Mendi Txapelketarako puntuagarria eta Sportech Iparraldeko Mendi Openerako baliagarria zen, eta hori parte hartzean izugarri nabaritu zen. Horri Urbasak duen xarma gehitu behar zaio.

Lasterketa, oso estu

Olazti eta Zudaire batzen dituen errepidean, 5,72 km-ko proba da Urbasakoa. Ohikoa denez, matxura asko izan ziren eta izan zen bidetik atera zen autorik ere; azkenean 72 ibilgailu sailkatu ziren eta 13 erretiratu. Javier Villa pilotu asturiarra izan zen azkarrena (BRC), 3 minutu 16 segundo eta 613 ehuneneko rekin. Ehuneneko gutxitara sailkatu zen Joseba Iraola bizkaitarra (Dedon Car, 3:17.016). Arkaitz Ordokik (Silver-Car) osatu zuen podiuma (3:22.206). Nahiz eta lehen mangan arazoak izan, Garikoitz Flores lakuntzarra izan zen sakandarrik azkarrena, bigarren igoerarako ibilgailua konpondu ondoren. Laugarren denbora onena egin zuen lakuntzarrak (BRC, 03:24.221). Guztira 11 pilotu sakandar lehiatu ziren. Bigarren sakandarra Iban Lopez de Goikoetxea izan zen (R5 GT Turbo). Javier Goikoetxea kopilotu olaztiarra pilotu bezala aritu zen, Urbasan, lehenengoz. "Beti antolakuntzan ibili naiz eta aurten pausua eman eta autoa alokatu dut. Egia esan, ez dabil oso fin, ez dut gehiegi probatu eta kotxea gehiegi probatu gabe ateratzea ere ez da egokia, baina beno, probatzeko ez dago gaizki. Oso giro ona dago" zihoen goizean hirugarren sakandarra izan zen olaztiarrak. Gainontzeko pilotu sakandarrek giro bikaina zegoela ere azpimarratu zuten. "Aurten akaso, jende gehiago dago. Urbasako giroa etxekoa da, primerakoa" zioen Garikoitz Goñik. Bukaeran, sari ematean 4.000 euro dirutan eta trofeoak banatu ziren. Guztia zegoen bezala uztea izan zen antolatzaileen beste erronka eta garbiketa lan bikaina egin zuten.

Sakandarren podiuma. PELI AVM

Katxarro eguna Bakaikun

Larunbatean, 10:00etatik aurrera, ibilgailu klasikoen topaketa Bakaikun

Bakarrekoetxea elkarteak eta Kotxko tabernak Katxarro egunna antolatu dute biharko. Autoak, motorrak, kamioiak, bizikletak... mota guztietako ibilgailuak bildu nahi dituzte eta aitzakia horrekin egun polita pasatu. Tartean bazkaria antolatu dute elkartean. Inskripziorako hots egin 680 825 557 telefonora.

Katxarro eguna

10:00etatik 13:00etara Autoen topaketa.

11:30ean Parte hartzaileendako auzatea.

14:30ean Bazkaria elkartean.

www.guaixe.eus

Argazki galeriak eta informazio gehiago.



kultura >>

Sakandarrak Iruñeko pastoralean

Larunbatean, 17:00etan, Iruñeko Burgoen plazan; eguraldiak lagunduko ez balu, Labrit pilotalekuan. Zuberoako herri antzerkian parte hartuko dutenek 12:00etan Iruñeko Alde Zaharreko karriketan barna desfilea edo Karrika-ingurua eginen dute Karmen kaletik abiatuta

Josemiel Bidador, Iruñeko Euskaldunak pastorala jokatuko da bihar. Hiriburuan bertan sortutako zuberoar moldeko ikuskizunarekin Jose Migel Bidador zena omendu nahi dute Duguna dantza taldeak, Zaldiko Maldiko elkarteak, Txantreako Euskaldunon Biltokik eta Karrikiri Iruñeko euskaltzaleon topaguneak. Ikuskizunean Bidadorren ibilbidearen glosa eginen da; Bidador idazle, dantzari, ikerlari, alkate, laguna, familiako…ageriko da eta, era berean, ikuskizunak Iruñeko euskaldunei eginiko gorazarrea izan nahi du.

Ia ehun lagun ari dira arizale, kantari, dantzari, musikari eta gainerako parte-hartzaileen artean. Haietako lau sakandarrak dira: Rafa Blanco, Castillo Suarez, Txomin Uharte eta Maria Flores. Laurak ere 6. jelkaldiko testu irakurleak izanen dira. Bidador duela bost urte hil zen eta Artikako kultur etxean omenaldia egin zioten. Han irakurritako testuen pasarteak irakurriko dituzte laurek bihar. Bidadorrek Bierrik fundazioarekin izandako harremanaz ariko da Blanco; Suarez Euskal Idazleen Elkarteko kide gisa eta Uharte eta Flores lagun gisa. Pastorala lehenagotik prestatzen ari badira ere, sakandarrak garilean lotu ziren entseguetara.

+www.guaixe.eus

Etxarri Aranazko abesbatza Burgosen

Kantu Koraleko Sari Nagusi Nazionalean parte hartuko du beste bost abesbatzekin batera, igandean, 20:00etan, Burgosko auditorioan

Etxarri Aranazko abesbatzak Ejea de los Caballeroseko XLIV. abesbatzen lehiaketa irabazi zuen apirilaren 12an. Sariak Burgosko XIV. Antonio Jose Kantu Koraleko Sari Nagusi Nazionalean parte hartzeko txartela eman zion abesbatzari eta igandean lehiatuko da. Etxarriarrekin batera beste bost abesbatza ariko dira.

Burgosko Antonio Jose konposatzailearen *¿Ay, amante mio!* abestia kantatuko dute guztiek. Abesbatzek, 1700 urte aurretik hildako konposatzaile baten pieza bana kantatu beharko dute. Etxarriarrek Carlo Gesualdo di Venosaren (1566-1613) *Tenebrae factae sunt* abestuko dute. Azkenik, aukera libreko kantu gisa Javier Bustoren *O Magnun Mysterium* abestia kantatuko dute Alicia Armendariz Murillok zuzenduta.

Grandako abesbatza Altsasun

Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Maiatzaren 23an Erkudengo Ama abesbatzak Grandako elizan kantatu zuen, musika erregionaleko talde koralen XIV. Emcore topaketan. Udaberriko bisita udazkenean bueltatuko du Grandako abesbatzak. Policarpo Muñiz Santuriok zuzentzen duen abesbatzak kantu profano eta erlijiotsuekin osatutako errepertorioa eskainiko du, obra klasikoak, herri kantak eta beste tartekatuz. Halako elkartrukeetan ohi denez, Altsasuko abesbatzak pieza pare bat abestuz emanen dio hasiera emanaldiari, oholtza gonbidatuei uzteko. Asturiarren kontzertua eta gero, emanaldia bi abesbatzek batera despedituko dute.

+www.guaixe.eus

bazterretik

Juankar Lopez-Mugartza

Gaztetan euskaraz mendietan barna

Gaztetan, hamabost edo hamasei urterekin, Etxeberrira joaten ginen gure eskolako apaizarekin. Herriko apaizetxean bertan gaua pasatzen genuen, hurrengo egunean Aralar osoa zeharkatzeko asmoz. Gaua baino lehen apezetxe ondoko etxe batera joaten ginen behiak nola jezten zituzten ikustera. Hango gizonak botila batzuk esnez betetzen zizkigun eta etxera joaten ginen pozpozik, benetako esnea edatera. Orain, herri horretan esnea tetrabricketan saltzen dute eta Euskal Herriaren bihotzean dauden arren, marka izen arrotza darabilte. O tempora! O mores!

Garai haietan, halere, euskara gutxitan entzuteko aukera nuen. Ama joana zitzaidan eta Altsasura ia ez nintzen jada hurbiltzen. Iraganak ziren ume garaiko egun distiratsu haiek. Urtero-urtero joaten ginen herrira uda garaian eta Urbasara igotzen ginen, edo Basomuturren ematen genuen eguna, edo, jaia zelarik, San Pedrora hurbiltzen ginen ilusioz beterik. Orduan bai, orduan euskaraz aritzen zen nire ama. Apeadero auzoko bankuetan eserita eta eguzkitan zeuden azken euskaldun-zaharrekin, bera ere Altsasuko azken euskaldun-zaharretarikoa izanik, niretzat oso gaztea zela iruditzen zitzaidan arren, alegia, polita, eta inolaz ere zaharra.

Txango ederra bezain gogorra zen Aralarren zehar egiten genuen hura. Goizean goiz Nafarroatik abiatu eta iluntzean Gipuzkoako helmugara iristen ginen: gure eskolako apaizek Orendainen zeukaten apez-etxera. Izan ere, apez-etxez apez-etxe ibiltzen ginen denbora hartan eta, agian horregatik, immunizatuta nago gaur egun, apaiz baten bat biziki estimatzen dudan arren; adibidez, Guardetxez haratago gurekin batera txangoa egiten zuena. Izan ere, Madozera iristean berak bilatu eta aurkitu behar zuen bidea Ata ibarreko harriraino, Errolan harriraino, ailegatu ahal izateko. Berak motxilarik handiena eramaten zuen Amezketaraino eta gu bere inguruan mugitzen ginen tximeletak bezala. Benetan maite genuen apaiz mendizale eta euskaltzale hura.

Ama hil zenean, nire bigarren ama aldameneko Manolita andrea izan zen, Etxarriarra, bihotz onekoa eta hau ere euskaltzale sutsua. Harena bai zela hizkera ederra eta garbia! Bakarrik nengoenean, bere etxera pasatzen nintzen eta bere ahotik gure euskara entzuten nuen, amak erabiltzen zuen berbera. Manolita ere maite nuen, apaiza baino gehiago, ama zena baino gutxiago... edo nik zer dakit ba! Baina, aitortuko dut oraindik ideia oker bat nuela garai hartan buruan... ama, Manolita... euskara helduen gauza zela, amarekin gertatu bezala, helduekin batera euskara bera ere hilko zela.

Horregatik Txindokitik jaistean eta Abaltzisketako plazan haurrak euskaraz jolasten ari zirela entzun nuenean guztiz oker nengoela ulertu nuen berehala.

Tanger eta gero, Altsasu

Marokon Sakanako artisten lanak ikusgai izan ondoren hilaren 16tik aurrera Arte Azoka izanen da Altsasuko Iortia kultur gunean

Irailaren 3tik 30era Tangerko erdigunean, El Minzah hoteleko Ibn Khaldoun galeria-kultur gunean ikusgai jarri zuten erakusketa jaso ondoren, ARTebide elkarteko Manola Arregi eta Jule Costa ostiralean bueltatu ziren. 13 sortzaile sakandarren eta beste 9 gonbidaturen lanak ikusgai izan ziren erakusketan. Costak zehaztu digunez, formatu txikiko koadroak izan dira ikusgai egon direnak. "Denetariko teknikak izan dira: margolanak, grabatuak, collage modukoak..."

Costak esan digunez, "gu egon garen egunetan erakusketatik pasatzen zen jendea bazela ikusi dugu". Arregiren iritziz, "hemendik ikusita, Tanger edo Maroko, nahiz eta hurbil egon urruti daude. Beste kultura baten barruan murgiltzen zara eta haiek artea edo eskulana nola estimatzen duten ikustea, esperientzia polita izan da".

Tangerkoa buruan dutela, ARTebideko kideak Altsasuko Arte Azokaren prestaketan buru belarri sartu dira. Altsasuko Iortia kultur gunean erakusketa muntatzen astelehenean hasiko dira. Erakusketaren mustutzea hilaren 16an izanen da, ostiralez, 19:00etan. Ohi bezala sortzaile sakandarrekin batera artista gonbidatuen lanak ikusteko aukera izanen da IV. Arte Azokan. Ez dute jarduera osagarriak egitea baztertzen.

+www.guaixe.eus

Interneten:

www.arteazoka.webnode.es

Literatura-txangoa Pasaiara

Arkatz liburu-dendak Ibon Martinen *El faro del silencio* liburuaren irakurleak gertaerak jazotzen diren tokiak ezagutzeko literatura-txangoa antolatu du lastailaren 25erako

Ibon Martinen liburuko pertsonaia Leire Altuna da. Erdibitutako emakume baten gorpua opatu du Pasaiako itsasargiaren ondoan. Bera dute susmagarri, desesperatuta bere kabuz ikertzen hasiko da eta hiltzailea XIX. mendeko Gasteizko hiltzaile baten imitatzailea dela atzemanen du. Pasaiako itsas portu berriaren egitasmoaren aldeko eta kontrakoak, ekonomia krisia eta bestelakoak ere jasotzen ditu liburuko istorioak.

Eleberriko eszenatokiak bertatik bertara ezagutzeko txangoa antolatu du Arkatz liburu-dendako Elena Aldasoro Galanek. Egitaraua hauxe izanen da: Pasai San Pedroko elizatik atera eta itsasadarraren ertzetik joanen dira, San Pedrora txalupan pasatzeko. Portua pasa eta Albaola ontziolan San Juan baleontziaren lanen martxa ezagutzeko bisita eginen dute. Hura bukatuta, Platako itsasargira joko dute (han agertu da eleberriko hildakoa). Herrira bueltan, irakurleek hilerria bisitatuko dute. Hiru ordu letretako parajeak gorpuzteko.

+www.guaixe.eus

Izen ematea

Altsasuko San Juan kalean dagoen liburu-dendatik pasa, 948 563 156 telefonora hots egin edo arkatz@terra.com e-posta helbidera idatzi. 50 tokiak bete arte edo lastailaren 16ra arte eman daiteke izena.

Arakilek abiarazi du bere udazkeneko agenda

Arakilgo Udalaren udazkeneko kultur agendari igandean eman zioten hasiera. Zenbait arakildarrek Etxeberri eta Hiriberri arteko joan etorria mendiz egiteko baliatu zuten igande goiza. VIII. Arakilgo mendi martxa izan zen. Bidea bukatu ondoren, Etxeberriko elkartean bazkaldu zuten.

Xaniturri emakume taldearen laguntzaz antolatutako ipuin kontalari saioa iragarri dute, baita izena eman beharreko bi ekitaldi ere. Lehena, Azpeitira eginen den kultur bidaia. Hara joan nahi dutenek hilaren 20ra arteko epea dute izena emateko. Arakilen erroldatuek 25 euro ordaindu beharko dituzte, erroldatu gabeek, berriz, 30. Bigarrena, azaroaren 28an Hiriberrin izanen den musika afaria. Izen ematea azaroaren 24an despedituko da eta 15 euro ordaindu beharko dira.

Egitaraua

>> Lastailak 10, larunbata
10:00etan Trial-bizikleta txapelketa, Bi aizpeko ibaiko pasealekuan.
20:00etan Ihabar Cabaret antzerkia, Ihabarko beheko iturri inguruan.

>> Lastailak 24, larunbata. Azpeitiara kultur-irteera.
9:00etan Irteera autobusez, herrietatik.
11:00etan Euskal Trenaren Museoari bisita.
12:30ean Lurrun trenean bidaia.
14:00etan Bazkaria.
15:30ean Azpeitia ezagutu.
18:00etan Autobusez Arakilera buelta.

>> Azaroak 7, larunbata. Haurren jolas eguna.
16:00etan Puzgarriak, txokolate-jatea, zirko tailerra, ginkana... Etxarrengo frontoian.

>> Azaroak 21, larunbata. Emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna.
19:00etan Con ojos de tortuga, helduendako ipuin kontalaria. Etxarrengo elkartean.

>> Azaroak 28, larunbata. Egun musikatua.
19:00etan Arakilgo abesbatzaren kontzertua, Hiriberriko elizan.
22:00etan Erorrekin musika afaria, Txitera elkartean.

>> Abenduak 4, ostirala.
17:00etan Inside out, Del Reves, Izurdiagako elkartean.

Argazki lehiaketa

Udazkena Arakilen. Gai hori emanda lehiaketa antolatu du Arakil Kulturak. Bi sari banatuko dira: epaileena, (150 euro) eta herri bozka bidez aukeratutakoa (50 euro). Azaroak 15era arteko epea izanen da lanak aurkezteko. Oinarriak www.arakil.net web orrian kontsultatu daitezke.

Hiruko baten jazz doinuak

Domekan, 22:30ean,
Altsasuko Haritza tabernan

Javier Lopez Jaso (akordeoia), Marcelo Escrich (kontrabaxua eta baxu elektrikoa) eta Juanma Urriza (bateria) izanen dira etzi. Hirukoak jazz tradizioa musika inprobisatuaren kontzepzio berriekin uztartzen du, euren ukitua emanez. Akordeoiaren eta kontrabaxuaren doinuek sonoritate ederrei atea zabaltzen die. Tangoa, mussette frantziarra, erritmo nahasketa eta musika klasikoak bat egiten du hirukoaren musika proposamenean. Lopez Jasoren eta Escrichen sorkuntzekin batera beste egileenak ere emanen dituzte.

Zinema bidezko ikasgaiak

XVI. Iruñeko Zinema Jaialdia martxan da eta bere baitan duen sailetako bat Educactif da. Sail horrek DBHko eta Lanbide Heziketako ikasleei zinemaren bidez balioak zabaltzea du helburu. Horregatik, Sakanako hainbat ikasle atzo eta gaur Altsasuko Iortia kuktur gunetik pasako dira. Film laburren proiekzioak ikusi eta emanaldien ondorengo filmaren gaian aditua den batekin iritzi trukea izateko aukera izanen dute ikasleek.

Zinema sasoia gaur abiatuko da

Altsasuko Iortia kultur gunean zinema sasoia gaur abiatuko da. Gaurkotasunezko filmen emanaldiak iragarri dituzte lehen asteetarako. Film horiek ostiraletan 22:00etan eta domeketan 20:10ean ikusteko aukera izanen da. Eta emanaldia Mr Holmes filma izanen da. Haurrendako emanaldiak heldu den astean hasiko dira eta bi aste barru zine forum-ekoak.

Sarrera 5 eurotan eskuratu daiteke, 4,5ean aurretik erosiz gero. Haurrek, berriz, 3,5 eurotan, 3 aldez aurretik erosita. Zinema zaleak, hala ere, bonuak erosteko aukera izanen du sasoi berrian ere. 3 sarrera 12 eurotan eskuratu daitezke (hilabete bateko iraupena du eta bonua pertsonala da). 5 sarrera 20 eurotan (hilabeteko iraupena eta filmeko gehienez bi pertsona). Azkenik 8 sarrerako bonua erosi daiteke 30 eurotan (2 hilabeteko iraupena eta filmeko gehienez bi pertsona).

Gasteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 5%	euria: 5%	euria: 15%	euria: 68%	euria: 88%	euria: 58%	euria: 35%
Min: 6 Max: 16	Min: 5 Max: 19	Min: 8 Max: 19	Min: 9 Max: 15	Min: 8 Max: 13	Min: 7 Max: 13	Min: 6 Max: 12

: tenperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	25.5	6	13.2
Etxarri A.	25.8	3	13.5
Altsasu	24	3.5	20.1
Aralar	17.1	3.7	19.2
Urbasa	21.2	1.3	8.2

: ilargiaren aldia>>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
13	20	27	3

Bazkide zozketa

beleixeguaixe

LASTAILEKO SARIAK:

1. SARIA:
Ekainberri kobazuloetarako sarrera, Artazako kanpinerako deskontua, Lacturale lotea, Artiumerako sarrerak, Gaztezulo aldizkarirako harpidetza eta Magna Gurpearako bi sarrera.

2.,3. ETA 4. SARIA:
Artazako kanpinerako deskontua , Lacturale lotea, Artiumerako sarrerak, Gaztezulo aldizkarirako harpidetza eta Magna Gurpearako bi sarrera.

Ekain berri
Artium
IRURTZUN XOTA F.S.
CAMPING ARTAZA
lacturale
gaztezulo

>>11 galdera

Altsasuko gaztetxea

Gazte asanbladako kideak

Testua: Larraitz Amadoz Lazkano

1. 25. urteurrena bete duzue aste honetan, nola sortu zen gaztetxe bat eraikitzearen ideia?
1990. urtean mugimendu handia zegoen kalean, gazteek lokalak eskatzen zituzten beraien beharrak asetzeko, besteak beste, sormena eta musika lantzeko. Udaletxearekin lokal bat hitzartu zuten. Gaztetxearen sortzaileek iraileko udalaren bilkura batean etxe baten lagapena eginen zietela uste zuten. Bilera horretan udalarekin hitz egindakoa ez zela beteko jakin zuten, eta hasiera batean gaztetxe moduan erabiliko zen etxea beste erakunde bati eman zioten.

2. Zer egin zuten orduan?
Beste bide batetik joatea erabaki zuten. Lastailaren 5ean asanblada berezi bat egin zuten elizako atarian. Jende andana elkartu zen, eta hori probestuz, Txiki Polita kaleko hamahirugarren zenbakira etorri ziren eta barrura sartzea erabaki zuten. Altsasuko gaztetxearen historia hor hasi zen.

3. Garai hartan gaztetxea sortu zutenekin baduzue harremana?
Batzuk familiakoak dira, baina agian adin tarteagatik edo ez dugu erlazio zuzenik. Ezagunak, noski. Urtemugarako hainbat ekimen antolatzen ari gara eta beraiekin harremanetan jarri gara.

4. Ze esanahi dauka zuendako gaztetxeak?
Gaztetxea, gure nahiak ala desioak errealitate bihurtzen dituen espazioa da. Gure burutazioak aurrera eramateko leku alternatiboa. Beste erakunde edota instituzioek eskaintzen ez dituzten ekimenak hemen egin ditzakegu.

5. Beste gaztetxeekin erlaziorik ba al duzue?
Garai batean bai, Sakanako Gazte Asanbladak funtzionatzen zuenean. Bestalde, Euskal Herriko gaztetxeen koordinakundearen barruan egon gara. 2010. urtean Euskal Herriko gaztetxeen eguna Altsasun ospatu zen.

6. Gaur egun nola ikusten duzue gaztetxeen presentzia?
Tokian toki ikusi beharreko gauza da. Altsasuren kasuan herriak gaztetxearen presentzia oso ongi onartu duela ikus dezakegu, eta hori guretako oso pozgarria da.

7. Altsasun belaunaldi berriek badute interesa gaztetxeagatik?
Orain dela urte batzuk belaunaldien arteko lekukoa eman zen. Urte batzuetan hutsuneak egon ziren, ez zelako belaunaldi berri askorik sartzen. Orain, aldiz, belaunaldi berriak jarraian etortzen direla ikusten ari gara, baina horren atzean, egia esan, lan asko egin dugu. Zentzu honetan Altsasuko gaztetxea erraz berritzen da.

8. Nola kudeatzen da Altsasuko gazte asanblada?
Gaztetxe baten oinarria autogestioa eta asanblada dira. Bi oinarri horiek gure zutabeak dira. Asanblada astero biltzen da, asteazkenero arratsaldeko 19:30etan eta bilkura horietan urte osoko ekimenak aurrera eramaten saiatzen gara. Beste aldetik, autogestioa egonen litzateke. Ekimen desberdinen bitartez gure gastuetarako dirua ateratzen saiatzen gara.

9. Zein azpiegitura dauzka Altsasuko gaztetxeak?
Beheko solairua asanbladak egiteko espazioa litzateke, eta festa giroan erabiltzen den eremua ere bada. Eszenatoki bat dugu, kontzertuak, antzerkiak edo bestelako ikuskizunetarako. Goiko solairuan tailer bat daukagu, material guztiak bertan gordetzen ditugu, eta bilera gela bat ere badugu. Horretaz aparte, Garraxi irratiaren egoitza ere hemen kokatzen da.

10. Aldaketa handia izan du gaztetxeak 25 urte hauetan?
25 urtetan gaztetxeaz aparte gizarte osoa aldatu egin da. Egia da lehen gaztetxearen eguneroko bizitza gehiago indartzen zela, hainbat tailer egiten zituzten, etxe barrurako gauza gehiago egiten ziren. Eta azken hamar urte hauetan, kanpora ala herrira begirako ekimen gehiago egin dira.

11. Urteurrenari begira ze egitarau prestatu duzue?
Ospakizuna astelehenean hasi zen. Pilota txapelketa bat antolatu dugu eta Gure Etxean erakusketa bat zabaldu dugu, 90eko hamarkadako arropa, bideo eta kartelekin. Atzo generoa eta gazteriaren inguruko hitzaldia eta pintxo-potea izan genituen; gaur, ostiralean, haurrei bideratutako jolasak izanen ditugu, baita desafioen jarraipena ere. Bihar, aldiz, betiko kalderetak izanen ditugu, zumba poteoa eta festa giroa. Igande arratsaldean, urteurrenaren harira egindako argazkiak eskainiko ditugu eta, ferietan, pilota txapelketa finala izanen dugu. Azaroaren 14an, berriz, kontzertu festa handia prestatu dugu. Zea Mays, KOP, edota La Viuda Negra arituko dira. Dagoeneko txartelak salgai daude.